


MIRAGE
press
LE MAILLOT JAUNE DES
HEROUMADRES SPORTIFS
N° 581
31 Juillet 1957
60 francs
ALGERIA: MAJALLAH P.
TUNIS: J. B. GUERINIER
BELGIQUE: J. P. Ingber

JACQUES ANQUETIL

Raul Perez Martinez



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



Raul Perez Martinez Parisen jaio zen 1976an, baina Donostian bizi izan da betidanik. Informazio Zientzietan lizentziatua, Irutxulo astekarian, Irutxuloko Hitza egunkarian eta Gaztezulo hilabetekarian lan egin du. Euskara irakasle ere jardun da, AEKn, eta Tropela.net euskara elkarteko kide ere bada.

Liburu honi buruzko iritzi guztiak ongietorriak izango dira egilearen aldetik honako eposta helbidean: rapema24@gmail.com

Jacques Anquetil

© Raul Perez Martinez Lehen edizioa: 2012ko iraila

Azaleko argazkia: Miroir Sprint aldizkaria Kontrazaleko argazkia: Iñaki Sagastumek utzita

Eskerrik asko era batean edo bestean liburu hau argitaratzen lagundu didaten guztiei

ISBN 978-84-615-9835-9 L.G. SS 1241-2012

Nire idoloa zen (hitzaurrea)

Aurreko urtean afizionatuetan aritu eta gero, 1966an debuta egin nuen profesionaletan Fagor taldearekin, eta zuzenean Tourrera eraman ninduten. Taldeko hamar txirrindularietatik bostek aurreneko Tourra genuen. Niretzat lehena, eta Anquetilentzat azkena. Nire idoloa izateaz gain, gizon jatorra zela gogoratzen dut, kalitate handikoa. Berak ez zuen irabazterik izan Tour hura, baina lan handia egin zuen bere taldekide batek, Lucien Aimarrek, irabaz zezan. Egunkari eta irrati bidez jarraitzen zen sasoi hartan ziklismoa, telebistak kasik ez zuelako ematen.

Anquetilek dopinaren aurkako kontrolak ez zituela begi onez ikusten oroitzen naiz. Halakorik pasatu behar izatea iraingarria iruditzen zitzaion; beharbada, bere mailako ziklista batek, nahi izanez gero, zirrikiturik aurkituko zuen dopin kontrolei iskin egiteko, baina ez zuen garaipenek emandako botere hori bere buruaren mesedetan baliatu. 1966ko Tour hartan, Bordeletik abiatu zen etapan, kontrolak salatzeko protesta egin genuen txirrindulariok, Anquetil buru zela.

Kirol lehiara etorrita, zale askok Raymond Poulidor, Anquetilen aurkari nagusia, nahiago zuten; erdi negarrez ageri zen askotan *Poupou*. Baina agian jende askok ez dakiena da Anquetilek eskuzabalago jokatzeko zuela bere taldekideekin. Poulidorrek baino diru gehiago banatzen zuen Jacquesek haren alde lan egin behar zuten ziklisten artean, eta jokabide hori oso garrantzitsua izan zen hainbat lasterketatan. Eta taldekideen artean ez ezik, aurkarien artean ere bazuen adiskiderik Anquetilek. Indurainen antza bazuen; Tourra erlojupekoetan erabakitzen zuen, baina irabazteaz gain irabazten ere uzten zien kontrarioei. 1964ko Tourrean, Andorratik ateratako etapan, Anquetil atzean geratu zen berehala, Envalira mendatean gora, eta Poulidorrek aurrera jo zuen. Raymondek hainbat ziklista zituen aldamenean aurrera egiteko, bai, baina lagunik ez zuen inguruan eta ez zion egoerari probetxurik atera.

Frantziako zaleek gehiago maite zuten Poulidor Anquetil baino, baina zenbat ez ote zuten, bada, gaur egun emango Anquetil bezalako txapeldun bat izateko!

Txomin Perurena (Oiartzun, 1943) Bost aldiz bukatu zuen Frantziako Tourra eta 1974koan Mendiko Sailkapena irabazi zuen.

Quincampoixeko ilehoria

Frantziako ipar-mendebaldean dago Normandia. Rouen da eskualdeko hiriburua – Victor Hugo idazleak *ehun kanpandegien hiria* esaten zion– eta Rouenetik gertuko Mont Saint Aignaneko klinikan jaio zen Ernest Anquetil eta Marie Legranden seme zaharra, 1934ko urtarrilaren 8an. Jacques izena jarri zioten gurasoek jaio berriari. Haurtzaroaren lehen zatia, Rouen ondoko Boise Guillaume herrian igaro zuen Jacques txikiak. Lau urte baino ez zituela igo zen aurrenekoz bizikleta batera. Bizikleta gorria zen. Aitak atzeko bi gurpiltxoak kenduak zituen ordurako, eta haur txikia lurrera jausi egin zen. Hori ikusita, semea koskortu artean bizikleta ganbaran sartzeko burutazioa izan zuen Ernest Anquetilek, etsita. Haatik, ume koskorra zutik jarri, bizikleta hartu eta orduan bai, orekari eusteko gai izan zen, gurasoen harridurarako.

30eko hamarraldiaren bukaeran, Bigarren Mundu Gerra iristearekin bat, Anquetil-Legrand familia tokiz aldatu zen. Ernest igeltseroa zen ogibidez, baina ez zien alemaniarrei lagundu nahi izan blockhausak edo bunkerrak eraikitzen.

Boise Guillaume utzi eta Quincampoixen jarri ziren bizitzen –aurreko bizilekutik gertu samar–. Ernest Anquetilek igeltseritza utzi eta nekazaritzari heldu zion; marrubiak lantzen eta biltzen hasi zen, familiaren etxe inguruko landetan. Quincampoixen bertan jaio zen 1940an Philippe, Jacquesen anaia gaztea.

Beste edozein haurren kasuan bezala, eskolara joatea zen Jacquesen betebeharr nagusia. Ez zuen, ordea, gustuko. Aspertu egiten zen eta maisu-maistrek arbelean jarritakoari ez zion jaramon handirik egiten. Eskolara joan aurretik eta etxera itzulitakoan aitari laguntzen zion marrubiak jasotzen. Zortzi urterekin gurasoek bizikleta berria oparitu zioten. Ondo pasatzeko, bai, baina baita etxetik eskolara eta eskolatik etxera joan-etorriak azkarrago egiteko ere, denbora gehiago izan zezan aitari nekazaritza zereginetan laguntzeko. Ziklismoaren harrarik ez zuen artean. Hamar urteko mutil koskorra zela, Normandiako lehorreratze historikoaren gertuko lekukoa izan zen 1944ko ekainean. Aliatuek Quincampoix gertuko Saint Laurent sur Mer, Chebourg, Caen, Coutances eta Avranches bereak egin zituzten. Nazienak egin zuen.

Hamahiru urterekin, Lanbide Heziketari ekin zion Jacquesek, Sotteville-Les Rouenen. Hura entretenigarriagoa zen eskola baino, baina ikasi beharra zegoen edozein

modutan. Nerabeak ataka zailean ikusten zuen bere burua: tornulari bilaka zitekeen ikasketak azken bururaino eramanez gero, edo bestela, aitaren biderei jarraiki, nekazaria izango zen. Gainerakoan, aisialdian zinemara joatea atsegin zuen, westernak pantaila handian ikustea gustatzen zitzaion. Baita gozo dendara joatea ere, txokolatea bere gutizia zelako.

Lanbide Heziketa eskolan Maurice Dieuloisek eta Jacques Anquetilek elkar ezagutu eta adiskide bilakatu ziren segituan. Lagunak irekiko zion Jacquesi txirrindularitzarekiko jakinmina eta zaletasuna. Dieuloisek lasterketetan parte hartzen zuen, eta mundu horrek erakarri zuen Jacques Anquetil, apurka-apurka. Adiskidea ikustera joan zen lehen egunean, Michel Billaux gailendu zen, gerora Anquetilen lagun mina izango zena. Autocycle Sottevillais klubean izena eman zezan animatu zuen Jacques adiskidea Dieuloisek. Lasterketa irabazleak bizikleta berri banarekin saritzen zituzten, eta horrek gatibatu zuen Jacques gaztea, beste ezeren gainera. Anquetilek talde hartako zuzendari Andre Boucher bisitatu zuen, Sottevillen zuen bizikleta dendan, eta taldean hasi nahi zuela esan zion. Proba moduan, bizikleta batean igo eta Boucherren Derny motorraren atzetik abiatu zen Anquetil. Gaztearen pedalei eragiteko modua gustatu zitzaion Boucher jaunari, eta eman beharreko hurrengo urratsaren berri eman zion dizipulu berria izan zitekeenari: aitarengana joan behar zuen txirrindularitza eskolan aritzeko baimena sina ziezaion. Azkar-azkar itzuli zen Anquetil Boucherrengana, aitaren baimena izenpetuta besapean. "Lehen entrenamendu saioetatik ohartu nintzen, eta ni bezala besteak, gizaseme horrek ziklismoa odolean zeramala. Hori zen hori estiloa!". Dieulois adiskidearen hitzak dira.

1951ko maiatzaren 3a: besoak gora aurrenekoz

1951n egin zuen debuta Jacques Anquetilek, Autocycle Sottevillais taldearekin. Ordurako lantegi bateko behargina zen. Entrenamenduen ordutegia izan zuen lehenengo buruhaustea: astearte gauetan aritzeko ez zeukan arazorik, baina ostegun arratsaldeko entrenamenduetarako baimena eskatu behar zuen lantegian. Ez zioten, baina, halakorik eman. Hori ikusirik, Anquetilek zirt edo zart egin behar izan zuen: lana edo ziklismoa. Lana utzi egin zuen. Horren aurrean, aita argi hitz egin zion semeari: ziklismoarekin bizimodua atera behar bazuen, aurrera; bestela, berarekin lan egin beharko zuen marrubiak jasotzen.

Astearte gaueko entrenamendu saioetan 50-60 kilometro egiten zituzten eta ostegunekoetan, igandeko karrerari begira aritzen ziren; gutxi gorabehera lehiatu

beharreko kilometro kopurua egiten zuten. Baina entrenatzaile zorrotzak, horrekin nahikoa ez eta beste 25-30 eginarazten zizkien bere mutilei, azken txanpa gainera, su bizian. Monsieur Boucherrekin broma gutxi...

Apirilaren 8an lehiatu zen Jacques Anquetil estreinakoz lasterketa batean. Le Havren izan zen, eta laugarren sailkatu zen. Bere laguna, Maurice Dieulois, gailendu zen. Hil berean, laugarren eta hirugarren postuan bukatu zuen Anquetilek Grand Prix Houlnes eta Prix des Commerçants de Gaillon lasterketetan, hurrenez hurren. Etorriko zenaren aurrerapena, besterik ez.

Maiatzaren 3an lehen garaipena eskuratu zuen Maurice-Latour proban. *Paris-Normandie* kazetak gazte onenari ematen zion maillota begiz jo zuen Jacquesek aurreneko lasterketa irabazi ondoren. Jantzi preziatua lortzeko, 85,6 kilometroko erlojupekoa irabazi behar zuen. Baita egin ere. Bi ordu zazpi minutu eta 13 segundoko denbora eginda, karrera eta gazte onenaren maillota eskuratu zituen. Biak batera. Batez besteko abiadura, 40 kilometro orduko pasatxo. Anquetil azkena atera zen erlojuz kontrako proban eta haren aurretik atera ziren bi ziklistei, tartean Dieulois adiskideari, aurea hartu zien.

Anquetil gazteak 1952. urtean pauso sendoak ematen jarraitu zuen. Bederatzi karrera irabazi eta lau domina kolkoratu zituen. Erlojupekoetan bikain aritzen zen. Baita tropelean, txirrindulari askoren alboan, pedalei eragin behar zienean ere. Horren adibide, Frantziako Txapelketa irabazi izana amateur edo afizionatu mailan. Txapelketa hark bat egin zuen Frantziako Tourreko atsedeen egunarekin. Horregatik, hainbat kazetarik bertatik bertara jarraitu ahal izan zuten Anquetil eta beste ziklista gazteen lana.

1952an bertan, bestalde, Finlandiako Helsinki hiriburuan Olinpiar Jokoak egin zituzten eta Anquetilek 12. postuan bukatu zuen; Frantziak taldekako domina eskuratu zuen. Denboraldia amaitu aurretik, Luxenburgon jokaturako Munduko Txapelketan –beti ere afizionatu mailan– zortzigarren postuan helmugaratu zen. Profesionaletara igarotzeko edo behintzat haien arreta bereganatzeko helburuarekin ekin zion urteari Anquetilek eta lortutako emaitzek bide onean jarri zuten.

Profesionaletara salto

1953a oso urte garrantzitsua izan zen. Afizionatu gisa hasi eta profesional bezala bukatuko zuen Anquetilek. Berez, afizionatu mailan hasi zen baina profesionaletako zenbait probatan parte hartzeko baimena bazuen. Adibidez, 1953ko abuztuan, Mancheko Tourrean aritu zen, inguruan profesionalak zituela. Aurreneko etapan bigarren sailkatuta poz handia hartu zuen Jacquesek, noski. Bigarren egunean bere kirolaren alde garrantzena ezagutu zuen. Izan ere, erori egin zen; oilarren artean pedalei eragitea ez da samurra, gero. Dena dela, ez zen denbora asko lurrean gelditu. Lau urte zituela gurasoek oparitutako bizikletan zihoala erori zenean bezala, berehala zutik jarri eta aurrera egin zuen. Ererikoak ez zion arrasto handirik utzi, biharamunean itzuli txiki haren azken saioan erakustaldia eman zuen eta. 38 kilometroko erlojupekoan Redolfiri, bigarren sailkatuari, ia bi minutuko aldea ateratzen zion. Redolfi bere taldeko zuzendariarengana, Antonin Magnerarengana, joan zen eta mutil ilehori hura kosta ahala kosta fitxatu beharra zegoela esan zion.

Bitartean, irailean Chateaulineko zirkuituan parte hartzeko gonbitea jaso zuen Anquetilek. Proba horren antolatzaileekin ika-mika izan zuen, haien eskaintza – 15.000 libera– gutxiegi iruditu zitzaion eta. Berak 25.000 libera eskatu zituen eta baita jaso ere. Lasterketa hartan bigarren bukatu zuen, Louis Bobeten atzetik. Sasoiko ziklista onenetakoa zen Bobet. Denboraldi hartako emaitzek profesionalen atea parez pare ireki zioten Anquetili. Gainera, ate bakarra ez, bi baizik. Bi eskaintza jaso zituen batera: Antonin Magneren Mercier taldearena eta Francis Pelissierren La Perlerena.

Magneren eskaintzak asebetetzen zuen gehien Boucher, Anquetilen ordura arteko entrenatzailea. Boucherrek eta Magnek elkarren antza bazuten. Biak langileak eta isilak, harrabots handirik sortzen ez zuten horietakoak. Antonin Magnek, gainera, irabazi zuen Tourraren historian jokaturako lehen erlojupekoa, 1934an. Txirrindularitza utzi zuenean zuzendari bilakatu zen, eta ez zen, gainera, oharkabe pasatzen: medikua zirudien bata itxuradun beroki txuri luzea janzen zuelako, eta buruan txapela. Anquetilek erlojuz kontrako lehiarako zituen dohainek gatibatu zuten Magne, nonbait.

Jacquesek baina, bere aldetik, Pelissier ahobero eta harroarekin negoziatu zuen; La Perleko buruak hilean 50.000 libera eskaini eta zirt edo zart egiteko eskatu zion. Anquetilek baietz erantzun zion eta horrek hautsak harrotu zituen bere ordura arteko talde apalean, Autocycle Sottevillaisen. Taldeko kide bat traidoretzat jo zuten,

Pelissierrengana Anquetilen berri ematera joan izana egotzita. Zurrunbiloa pasata, urak bere bidera itzuli ziren Anquetil eta Andre Boucher bere *aita bitxiaren* artean.

‘Frantziak badu bere Coppi’

Urte bereko irailean aritu zen lehen aldiz profesional gisa Jacques Anquetil, Grand Prix des Nations erlojupeko ospetsuan. Pelissier zuzendariaren Hotchkiss auto gorriaren aurretik abiatu zen. 20. kilometrorako Anquetilena zen denborarik onena. 40. kilometroan bigarren sailkatua lau minutura zihoan, eta helmugan zazpi minutuko aldea atera zion haren atzetik sailkatu zenari. Are gehiago: Hugo Koblet suitzarraren errekorretik 35 segundora geratu zen, haizeak oso zakar jo zuen arren eta zulatua eduki bazuen ere. 1,73 metro luze zen mutilaren balentriaz jabetzeko ezin ahaztu hemeretzi urte besterik ez zituela. Pierre Chany kirol kazetari eta gerora Anquetilen lagun mina izango zenak hauxe idatzi zuen egun hartaz, ziklista ezagutu zuen egunaz: “Nire aurrean zegoen, zutik, eta nik begiratzen nion sinetsi ezinik. Harrituta nengoen, ez zuelako txirrindulari itxurarik. Meharra, ahula eta zurbila zen eta zainak zituen begietan eta lokietan. Egia esan, horrela ikustean, bizikleta gainean egon ez balitz, ezin pentsatu prodijioa zenik. Haatik, segituan sumatu nuen izaera bazuela. ‘Ez, Francis jauna; ni ez naiz horrela entrenatzen!; bai, Francis jauna, otarraina jan nahi dut orain!’ botatzen zion bere zuzendariari. Pelissierrek zur eta lur begiratzen zion. ‘Gustura emango niokeen zaplasteko pare bat’, zioen...”.

Handik egun gutxira, beste erlojupeko batean parte hartu zuen, Suitzako Lugano hirian. Aurkari guztiak mendean hartu zituen Anquetilek egun euritsu eta lainotsuan. Bitik bi. Frantziako kazetek izugarritzko pozarekin hartu zituzten hasi berriaren lehen garaipenak. *Le Figarok*, adibidez, honako titularra argitaratu zuen: “Frantziak badu bere Coppi”.

Hain zuzen ere, Anquetilek gogo bizia zuen Fausto Coppi italiar txapeldun handia ezagutzeko eta ordura arte irabazitako diruarekin erositako Simca autoa hartu eta Italia aldera abiatu zen, *Paris-Normandie* egunkariko lagunekin batera. Alpeetan barrena joan ziren. Saint Jean de Mauriennen, Galibier aldapatzarraren magalean, afaldu eta Mont Cenis mendatearen gailurrean zeuden aduanazainei autografoak sinatu zizkien. Novi Liguren ezagutu zuten elkar Anquetilek eta Coppik. 34 urte zituen Coppik eta Italiako bost Giro eta Frantziako bi Tour irabazitakoa zen. Goia joa zuen ordurako. Italiako izarraren masajista itsua bertan zen eta Anquetilen gorputza ukitu ostean honakoa esan zion: “Coppiren berdin-berdina zara”. Coppi eta Anquetil azaroan izan ziren aurrez aurre lehenbizikoz, Italiako Baracchi bikotekako erlojupekoan. Coppi-Filippi bikotea nagusitu zen, Anquetil-Rollanden aurretik. Egun

gutxi batzuk geroago, berriz ere nor baino nor aritu ziren Parisko Vel d'Hiv belodromoan. Sasoi hartan, sona handia zuten zenbait belodromotan jokatzeko ziren sei eguneko probek eta Anquetil, etxekoan, Parisko Sei Egunetan, aritu zen denboraldiaren hondarrean zenbait urtetan. Belodromo horretan jazo zen Frantziako XX. mendeko pasarterik ilunetakoa. Milaka judu jarri zituen Vichyko Gobernuak nazien esku 1942an, Bigarren Mundu Gerra gori-gori zegoela.

Anquetil eta Bobet, elkarrekin Baracchin

Aurreko urtean eztabaida egin eta gero, askok espero zuten Anquetil gailurrera aitaren batean iristea eta hankapean hartzea arerio guztiak. Ikusmin handia zegoen. Dena dela, dir-dir egiteko baino gehiago, zailtzeko garaia zuen. 1954an etapaka lehen itzulia jokatu zuen Anquetilek, Paris-Cote d'Azur, eta zazpigarren bukatu zuen, erlojupekoa irabazita, hori bai. Alemanian, Solingenen, jokatu zen Munduko Txapelketa eta zazpigarren postuan iritsi zen helmugara. Emaitzak apalak izan arren, Antonin Magne zuzendariak begiz jota zuen hogeituro urteko mutila, eta Munduko Txapelketa bukatu bezain laster Anquetilengana joan eta fitxatzeko saiakera egin zuen, aurreko urtean bezala. Alferrik. La Perlen segituko zuen.

Irailarekin batera, Grand Prix des Nations erlojupeko luzearen txanda. Anquetil ez zen favorito nagusia. Ez zaleentzat ezta bere zuzendariarentzat ere. Pelissier bere taldeko beste ziklista baten atzetik abiatu zen, Kobleten atzetik, suitzarrak irabazteko aukera gehiago zuelakoan. Horrez gainera, Gabriel Ruel frantziar gaztea denen ahotan zegoen. Usteak erdi ustel. Anquetilek erakustaldia eman zuen eta irabazteaz gain, indarrean zegoen marka birrindu zuen. Zaleen artean bolo-bolo zebilen Ruel 10. postuan heldu zen helmugara 11 minutura. Garaipen hartaz kasik ezin izan zuen gozatu Anquetilek, soldaduskara joan behar izan baitzuen bizikletatik jaitsi eta berehala.

Dena dela, eta ozta-ozta izan bazen ere, Luganoko lasterketara joateko aukera eman zioten eta garaile atera zen Suitza aldean. Italian, aldiz, kale; Baracchi erlojupekoan Coppik eta Filippik garaitu zituzten Jacques Anquetil eta Louis Bobet. Ordurako ez zegoen batere giro onik Anquetil eta Bobeten artean eta handik aurrera tirabirak areagotuko ziren. Bi oilar oilategi berean egonik, gauza onik ez...

La Perleren azken arnasa

Erlojuz kontra *arraza garbiko* zaldiaren parekoa zela agerian utzia zuen ordurako Anquetilek. Mendate gogor eta luzeei ekiteko garaia zuen. Aurkarien erasoei eta erritmo aldaketei aurre egiteko ez zen horren abila. Hortaz, horretan trebatu beharra zuen nahitaez. 1955ean, Tour de Sud-Est proban Frantziako Tourrean ohikoak ziren mendateetako batzuk igo zituen, aurreneko aldiz. Zailtze bidean, beste pauso bat. Urte gorabeheratsua izan zen taldeari zegokionez. Arazo ekonomikoek itota, Pelissierrek La Perle salbatzeko ahaleginak eta bi egin zituen. Ez zegoen amore emateko prest. Hasiera batean lortu zuen, kirolaz kanpoko publizitatera joaz.

Anquetilek ez zuen Frantziako Txapelketa irabazi, baina lana beltz egin zuen Andre Darrigade taldekidearen mesedetan. Darrigade garaile atera zen eta, esker onez, Anquetilen laguntzaile leialenetakoa izango zen aurrerantzean, bere bizkarzain fidela.

Egutegiko azken zatiko erlojupekoetan agertu zen, osterara ere, Anquetil asekaitza. Grand Prix de Geneven, aurrena.

Sasoiko ziklista onenetako batzuk hankapean hartu zituen, hala nola, Ferdi Kubler, Hugo Koblet eta Stan Ockers. Eta ginga moduan, nola ez, Les Nationsen. Erronka behar bezala prestatzeko, sustraietara itzuli zen Anquetil; Boucherrek gidatutako Dorny motorraren atzetik azkar demonio entrenatu zen. Albert Bouvet bigarren sailkatuak baino hiru minutu azkarrago osatu zuen ibilbidea. 140 kilometro egin zituen Anquetilek 40,266 kilometro orduko batez besteko abiaduran. Bouveten hitzak, proba bukatutakoan, oso esanguratsuak izan ziren. "Nahiago dut Anquetilen kontra galdu, baldar koadrila bati irabazi baino".

Udazkenean, hondoa jo zuen La Perle taldeak. Denboraldiaren hasieran Pelissierrek egindako esfortzua ez zen nahikoa izan taldea onik ateratzeko. Italiara, Baracchin lehiatzera, joateko taldea bilatu beharrean ikusi zuen bere burua Anquetilek eta gauzak horrela, Coppiren taldeak, Bianchik, aterpe eman zion.

Horrek, baina, hautsak harrotu zituen Frantzia aldean. Bobet ez zen Anquetilekin fio. Hurrengo denboraldian jokatu beharreko Munduko Txapelketan bere alde lan egin ordez, Anquetilek Coppiren alde egingo zuen beldur zen Bobet. Alegia, bere taldeburuaren mesedetan jardungo zela, bere herrialdeko selekzioko liderrari

lagundu beharrean. Jelosiak jota ei zegoen Bobet. Azkenean, labirinto horretatik ateratzeko, ACBB-Helyett-Potin taldea sortu zuten, Anquetilentzat propio, hurrengo urtean Italiako talde baten altzora joan ez zedin. Txirrindularitza talde batek –ACBB– bizikleta etxe batek –Helyett– eta merkataritza iragarle batek –Potin janari dendak– eratu zuten taldea. Garai hartan, sekulako iraultza zen hura.

Ataka zailetik atera orduko, eta denboraldia bukatutzat eman aurretik, erronka handi bati ekin zion Anquetilek. Fausto Coppiren Orduaren Errekorra –45 kilometro eta 871 metro– hausten saiatu zen Italiako Milan hiriko Vigorelli belodromoan. Berez, bere orduko taldeak, Bianchik, bizikleta jarri zuen haren esku, baina araudiari erreparatuta, La Perle taldeko kide zen Jacques –nahiz eta ordurako talde hark soldatarik ez zion ordaintzen hondoa jota zegoelako–. Azkenean, La Perleren bizikleta erabili zuen eta Philippe Potinek, hurrengo urtetik aurrera bere talde berriaren nagusia izango zenak, bere gain hartu zituen gastu guztiak. Azken emaitza? 45 kilometro eta 248 metro. Coppi handiaren markatik 623 metrora geratu zen.

Vigorelli mon amour

Aurreko urteko udazkenean gauzatu gabe utzitakoa buruan zuela ekin zion lanari 1956an Anquetilek: Coppiren Orduko Errekorra hautsi nahi zuen. Beti ere begi bat Aljerian gertatzen ari zenari begira –soldaduska garaia zuen–, Boucherren motorraren atzetik hasi zen, jo eta ke, sasoi puntu egokia lortzeko. Ekainaren 22an hegazkina hartu zuen. Jomuga, lehengo urtean bezala, Milango Vigorelli belodromoa. Anquetilekin batera, Duponchel kazetari eta laguna, Dousset managerra, Mickey Wiegant kirol zuzendaria eta nola ez, Andre Boucher, gaztetan izandako entrenatzailea. Ordurako, Jacques Helyett-Potin taldeko izarra zen.

Marka onduz gero irabaziek nora joan behar zuten erabakia zegoen alde aurretik; erdia, Frantziako armadaren “gizarte ekintzetara” eta beste erdia, Aljerian zendutako soldadu frantziar gazte baten –bera ere ziklista zen– amarentzat. Orotara, 500.000 libera.

Ekainaren 25ean, 19:00etan. Une hartan abiatu zen Anquetil. Baldintza meteorologikoak ez ziren onegiak, baina harmailak beteta zeudenez, aurrera egitea erabaki zuten. Ondo ari zen, baina Coppiren marka hobetuko ez zuela ikusirik, 50. minutuan gelditzeko agindu zioten bere laguntzaileek. Edozein modutan, saiakera ez zen hutsala izan. Bizikleta guztiz egokia ez zela ohartu ziren, Anquetilek mina

baitzuen ipurdian. Ekainaren 28an berriz ere lehiarako pronto zeuden, baina bertan behera utzi behar izan zuten ahalegin hori ere ekaitzaren erruz.

Marka ezin hautsi, oinazea ipurdian, ekaitza... Horregatik guztiagatik, Anquetil urduri zegoen. Duponchel laguna hortaz konturatu zen, eta Jacquesek urduritasun guztia askatu zezan, parrandan ibili ziren biak Como lakuaren inguruan. Biharamunean jaiki, jantzi eta zuzenean belodromora. Gauez egingo zuten marka hobetzeko hurrengo saiakera.

25 gradu. Haizerik ez. Preseski egindako bizikleta gainean jarri zen Anquetil. Platera 52 hortzetakoa eta pinoia 15ekoa. Bizikletak 6 kilo eta 700 gramo pisatzen zituen. Lan erditan, ordu erdia igarota, 22 metro zituen alde Anquetilek Coppiren markarekiko. Gutxi zen, hari mehe baten baitan zegoen, baina bere laguntzaileek horixe nahi zuten, alegia behetik gora egitea eta ez goitik behera. 50. minutuan, orduan bai, errekorra ontzeko moduan zela esan zioten, barrena husteko agindu zioten. Zer eskatu, hura egin: 46 kilometro eta 159 metro. "Coppiren marka hausten lehena izan nahi nuen; orain, besteen txanda da". Anquetilek susmatzen zuen akaso bere errekorrak ez zuela asko iraungo, baina Coppik hamalau urte lehenago ezarritakoa hobetzeak bazuela meritua.

Errekorrak oihartzun handia izan zuen Frantzian, eta Parisen kapotarik gabeko auto batean ibili zen Jacques, hiriburuko kale eta hiribide garrantzitsuenetan barrena, errepide bazterretan pilatutako zaleak agurtzen. Anquetil ez zebilen oker, hala ere, bere markak 80 egun baino ez zituelako iraun; Ercole Baldini italiarrak hobetu zuen.

Orduaren Errekorrak hiru hilabete baino gutxiago iraun izanak ez zuen Anquetilen denboraldi bukaera lausotu. Ezta gutxiagorik ere. Grand Prix des Nations laugarrenez irabazi zuen errenkan. Segituan, soldaduskako betebeharragatik, Aljeriara joan behar izan zuen, Raymond Kopa eta Just Fontaine futbolari frantziar ezagunekin batera. Puri-purian zegoen Aljeria eta Frantziaren arteko gatazka –Aljeriak 1962an lortuko zuen burujabetza–. Boufarik base militarrean entrenatzeko aukera gutxi izan zuen Jacquesek...

Ustekabean, Tourra

1957ko denboraldia baikor hasteko arrazoi handirik ez zegoen. Urtarrilean itzuli zen etxera Anquetil, Joinvilleko batailoian ordezkapena egin baitzuten, eta lehen zeregina hamar kilo argaltzea izan zen. Bizitza, maila guztietan, irauliko zion urte baten hasieran zegoen. Sasoi puntua azkar hartu zuen Nizan, Genes-Niza eta Paris-Niza lasterketetan: bigarren eta irabazle, hurrenez hurren. Gorputzaldi egokia ez ezik, beste zerbait ere bereganatu zuen han. Edo bereganatzen hasi zen, hobe esanda. Ikusleen artean, Janine Boeda, bere kirol medikuaren emaztea zegoen. Hasieran, begitan hartu zuen Anquetil gaztea Janinek. Izan ere, bere senarrarekin nahi adina denbora igarotzea galarazten zizkioten txirrindulari gaztearen etengabeko bisitek. Horrez gain, Anquetil harroputza eta gaizki hazitakoa zela pentsatzen zuen. Denboraren poderioz, hasierako irudipena zeharo aldatu zen eta elkarrekin maitemindu ziren. Ordurako Janinek bi seme-alaba zituen: Annie eta Alain.

Aro berria Charleroin hasi zen

Gauzak horrela, Frantziako Tourraren ordua iritsi zen. Hasieran, Anquetil ez zen lehiatzekoa. Zergatia? Garai hartan, txirrindulariek euren herrialdeko selekzioarekin parte hartzen zuten Tourrean eta Frantziako izarrak, Louis Bobetek –1953, 1954 eta 1955eko Tourrak irabazi zituen– ez zuen bere aldamenean itzala egin ziezaiokeen txirrindularirik nahi, hortaz, ez zuen Anquetil haren ondoan gura. Hala ere, azken unean Tourrari uko egin zion Bobetek, Italiako Giroa ahituta bukatu zuela arrazoituta. Horrek parez pare ireki zizkion Anquetili Tourreko ateak. 120 ziklista lehiatu ziren, herrialdeka. Hori bai, Frantziari dagokionez, talde nagusiaz gain, beste lau talde, eskualdeetakoak, aritu ziren.

Frantziako txirrindulariekin batera, denen ahotan zeuden Marcel Janssens eta Jean Adrienssens belgikarrak, Gastone Nencini italiarra, Adolf Christian suitzarra, Charly Gaul luxenburgotarra eta Federico Martin Bahamontes espainiarra. Espainiako selekzioan, bazegoen euskal ziklistarik: Jesus Loroño larrabetzuarra.

Tourraren hasieran jaun eta jabe izan ziren ziklista frantziarrak eta Anquetilek berak hirugarren etapa irabazi zuen etxetik oso gertu, Rouenen. Hasiera ezin hobe, benetan. Hori bakarrik ez: bosgarrenean, Roubaix eta Charleroinen artekoan, maillot horia jantzi zuen lehen aldiz. Ordurako aurkari arriskutsuenetako bat, Janssens belgikarra, jokoz kanpo zegoen, izan ere, bigarren etapan, Granville eta Caen artean,

matxura izan zuen. Zazpigarren etapan erantzi egin behar izan zuen Anquetilek maillot horia, baina horrek ez zuen atsekabetu. Handik bi egunera, Besançon eta Thonon Les Bainsen artekoan nagusitu zen, Planckaert belgikarrarekin eta beste ziklista batzuekin tropelari iskin egin eta gero.

Nencini italiarra ere Itzulia irabazteko faboritoen zerrendan zegoen urte hartan, baina Thonon Les Bainsera bidean Anquetili, Planckaerti eta besteei jarraitu ezinik geratuta jabetu zen ez zuela Tourra irabaziko. Hurrengo etapan, Telegraphe eta Galibier igota, Briançonon bukatu zen etapan, maillot horia berreskuratu zuen behin betiko Anquetilek. Izerdi franko bota eta gero, hori bai. Izan ere, Telegraphe mendatea igotzen hasi aurretik gurpila zulatu zitzaion. Hala ere, egun hartan etapa garaipena lehiatu zuten bi txirrindulariek, Janssens eta Nencinik, bi minutu eta berrogei segundo baino ez zizkioten jan. Pirinioetan lider gaztea –Jacquesek 23 urte besterik ez zituen– oso estu hartzen ahalegindu ziren aurkariak, bereziki Janssens, Tourmalet, Soulor eta Aubisque mendatetzarrak igaro zituzten egunean. Anquetilek gorriak ikusi zituen, Aubisquen gorako sufrimendua ez zuen berehalakoan ahaztuko, baina eutsi egin zion. Baita ginga jarri ere, Bordele eta Libourne arteko 66 kilometroko erlojuz kontrako saioa irabazi zuen eta. Haren atzetik, Janssens eta Christianek bukatu zuten sailkapen nagusian, 15 eta 17 minutura, hurrenez hurren. Tokitan, alegia. “Ez dut mendia garaitu, baina mendiak ere ez nau ni gainditu”, esan zuen itzulia bukatuta Anquetilek. Ondo laburbildu zuen gertatutakoa. Mendiko etapetan erakustaldirik eman ez arren –Pirinioetan asko sufritu zuen– ez da ahaztu behar Alpeetako etapa batean jantzi zuela maillot horia behin betiko. Jesus Loroñok Tour bikaina egin zuen eta bosgarren postuan amaitu zuen.

Bizikleta gorde eta oporretara joan aurretik, erlojuz kontrako beste bi lasterketa sartu zituen Anquetilek garaipenen zakura: Genevakoa, eta Grand Prix des Nations. Binakakoan, Baracchin, laugarren sailkatu zen Darrigade adiskidea bikotekide zuela. Parisko Sei Egunetan, Vel d’Hiv-en, eman zituen denboraldiko azken pedalkadak. Euskal herritar batek, Cristobal Balentziaga jostunak, Parisen zaku itxuradun soinekoa hedatu zuen urte berean igaro zen Jacques Anquetil txirrindularitzaren lehen mailara behin betiko. Bolada luzerako igaro ere.

Zaleak, urrun

Esan ohi da zailena ez dela gora iristea, gailurrean irautea baizik. Orduantxe, Frantziako Tourra lehen aldiz irabazi ostean, hasiko zitzaion Jacquesi benetako aldapa. Ura baino xanpaina nahiago zuela eta entrenatu ostean, atsedean hartu beharrean parrandan eta kartetan denbora gehiegi igarotzen zuela hitzetik hortzera zebilen. Anquetilek ez zuen sekula ezkutatu bizitzaz gozatzea izugarri atsegin zuela: otarrainak, xanpaina... Bizizalea zen, *bon vivant*. Baina horrek ez zuen esan nahi ez zuela bere lanbidea serio hartzen.

Denboraldi hasierako erdipurdiko emaitzek ez zioten zurrunbilotik ateratzen lagundu. 1958ko Paris-Nizan oharkabean pasatu zen. Eta Paris-Roubaix klasiko handian, aho asko ixtear zela, atsekabe handia hartu zuen. 75. kilometroan aurrera jo zuen, ausart, beste ziklista batzuekin batera. Hamahiru kilometroren faltan lasterketaren buruan zihoan laukoteko kideetako bat zen. Bere indarra baliatu eta erritmoa aldatzeko gai baldin bazen, nekez jarraituko zion beste inork. Baina gurpila zulatu zitzaion. Azkar konpondu zuten matxura eta berehala harrapatu zituen aurreko hiru txirrindulariak, baina horretarako hustu egin zen. Oso kilometro gutxi falta zirela, gainera, tropelak jan zituen. Zakurraren putza. Sekula ez zen izango *L'Enfer du Nord* proban –hala esaten diote Paris-Roubaix lasterketari– irabaztetik horren gertu.

Anquetil-Gaul: lehia estuaren hasiera

Tourrean, Anquetilek ezin izan zuen oker hasitako denboraldia bideratu. Hasi aurretik, giro txarra nabaria zen Frantziako taldean. Bobetek taldeburua izan nahi zuen. Baita Geminianik ere. Hautatzaileak Geminiani beste talde batean jarri zuen, Frantziako eskualdeak ordezkatzeko zituen taldeetako batean, hain zuzen ere, urak baretuko zirelakoan. Adabakia baino ez zen izan, ordea.

Hori horrela, Anquetil eta Bobet Frantziako taldeko izen nagusiak ziren. Lehen etapatik gauzak okertu zitzaizkion Jacquesi. Eroriko baten ondorioz, denbora asko galdu zuen. Alpeetako etapa handiaren atarian, Geminianik zeraman maillot horia. Anquetilek, bere aldetik, ondo ikusten zuen bere burua eta Briançon eta Aix les Bainsen artean jo zuen. Baita gogor jo ere. Kukuak, baina, oso oker jo zion. Anquetilek elastiko berria, ustez erosoagoa eta modernoagoa, jantzi zuen egun hartan, baina euria goian behean ari zuen, eta hotzak jota geratu zen etaparen erdian. Eguzkia eta

beroa atsegin eta euria eta hotza gorrotatzen zituen. Aurkia eta ifrentzua. Charly Gaul, aldiz, oso eroso aritzen zen euria egiten zuenean eta egun hartan 22 minutu atera zizkion Anquetili. Hurrengo etapan, Jacques atera atera zen, baina taldekideek oso ahul ikusi zuten, helmugaratu bezain laster sendagilearengana eramane zuten. Biriketan mina zuen eta karrera utzi behar izan zuen, tuberkulosiaren mehatxupean.

Geminianik ez zion berehala barkatuko Anquetili Alpeetan, Chamrousse, Porte eta Granier mendateetan gora, horren gogor jo izana. Itzulia galdu izanaren erruduntzat jo zuen eta malkorik ez zuen isuri, ez horixe, Jacquesek hanka lurrean jarri eta erretiratu zenean. 33 urte zituen Geminianik eta bazekien tamainako aukera nekez izango zuela Tourra irabazteko. Gaulek irabazi zuen Tourra. Hilabete batzuk geroago, berriz ere Anquetil eta Gaul, Gaul eta Anquetil nor baino nor ariko ziren beste itzuli handi batean.

Tour hartan gertatutakoak ez zituen Anquetil eta zaleak hurbildu. Kontrakoa: are gehiago urrundu ziren. Zaleek Bobeten mesedetan lanik ez egiteko aitzakian utzi zuela lasterketa leporatzen zioten Jacquesi. Frantziako Itzulia bukatuta, bere herrialdeko inongo karreratako antolatzaileek ez zion deitzen. Tour osteko lehen lasterketa Belgikan izan zuen Anquetilek. Birikak bere onera itzuli ote ziren egiaztatu nahi zuen. “Ez banaiz gai proba bukatzeko, ziklismoa utziko dut”, aitortu omen zion Janine bikotekideari, ezkor. Lasterketa bukatu bukatu zuen, lehen postuetatik oso urrun izan bazen ere. Handik gutxira baina, betiko Anquetil, erlojuz kontra sekula hutsik egiten ez zuena, bueltatu zen. Genevako lasterketa eta Les Nations irabazi zituen, bata bestearen atzetik. Italiatik, aldiz, Baracchi probatik esku hutsik etxeratu zen beste behin ere: Baldini eta Moser gailendu zitzaizkien Anquetili eta Darrigaderi.

Denboraldia ixteko ohiturari jarraiki, Parisko Sei Egunetan lehiatu zen. Proba horretan parte hartu zuen azken aldia izan zen, hilabete gutxi batzuk geroago, diru arazoan erruz, Vel d’Hiv belodromoa itxi baitzuten.

Abenduaren 22an, bestalde, ezkondu ziren Jacques eta Janine. Senar-emazteak bakarrik ez. Jacquesen manager bilakatu zen Janine, nolabait esateko; lasterketa askotara joaten zen, eta esate baterako, Tour osteko kriteriumetako diru sariak berak jasotzen zituen. Eta denboraldi hasieran ‘erbi’ lanak egiten zituen: berak autoa gidatzen zuen, abiadura azkartu edo moteldu gabe, eta haren atzetik abiatzen zen Anquetil, bizikleta gainean. Bikotea Saint Adrianen jarri zen bizitzen, Rouenetik oso gertu.

Italiako Giroa

1958a urte grisa izan zen Anquetilentzat, distira gutxikoa. Hura lehenbailehen ahazteko asmoarekin ekin zion 1959ko denboraldiari. Paris-Niza-Roma proban bosgarren bukatu zuen. Bide batez, Erromara iritsita, Vaticanora joateko abagunea aprobetxatu zuten Jacques eta Janine ezkonberriek eta Juan XXIII.a aita santuak harrera egin zien.

Gant-Wevelgem klasikoan podiumera igo –hirugarren bukatu zuen– eta Paris-Roubaix klasiko handian 24. postuan helmugara iritsi eta gero iragarri zuen Jacquesek Italiako Giroan parte hartzeko asmoa zuela, beti ere Tourra bazterrean utzi gabe. Giroari begira, Charly Gaul luxenburgotarra eta Gastone Nencini nahiz Ercole Baldini italiarrak ziren faborito nagusiak, Anquetilekin berarekin batera. Errusiar mendian nola, hala ibili ziren itzuli hartan Anquetil eta Gaul. Orain bata maglia arrosarekin, orain bestea. Azken bi etapa erabakigarriak jokatu aurretik, Anquetil liderra zen, baina oso alde txikiarekin. Berak bazekien erlojupekoan aldea handitu behar zuela, Giroa irabaziko bazuen. Erlojuz kontra egindako lan apartari esker, hiru minutu eta 49 segundoko aldearekin iritsi zen mendiko azken etapara. Nahikoa? Aosta eta Courmayeurren artean, Grand Saint Bernardeko aldapan jo zuen Gaulek, baina Anquetilek jaitsieran harrapatu zuen. Luxenburgoko igotzaile bikainak ez zuen etsi eta hurrengo maldan, Forclazen, berriro ere eraso egin zion. Anquetilek aurreko mendatean bezala, goitik beherakoan, bat egin zuen Gaulekin. Azken malda, ordea, gehiegi izan zen Jacquesentzat. Gaulek Petit Saint Bernarden gora lehertu zuen eta Giroa bereganatu. Bukaera mikatza izan zen arren, Anquetili gustatu zitzaion Italiako itzulia eta hura lehiazera bueltatuko zela agindu zuen. Denboraldiko erronka nagusia, hots Tourra, ate joka zuen.

Ezin oilategia gobernatu

Frantziako Tourra hasi bezperan, Bidot Frantziako hautatzaileak bilerara deitu zituen taldean lider rola joka zezaketen lau txirrindulariak: Anquetil, Bobet, Riviere eta Geminiani. Oilategi berean lau oilar. Askotxo, zalantzarik gabe. Hautatzaileak erabaki zuen ezer ez erabakitzea. Alegia, errepideak berak, etapa joan etapa etorri, aukeratzea taldeburua. Azkenean, Federico Martin Bahamontes espainiarrak irabazi zuen Tourra, Anglade, Anquetil eta Riviereren aurretik. Bobetek ez zuen itzulia bukatu. Itxura guztien arabera, Frantziako taldea indartsuena zen, baina Bidotek ezin

izan zuen oilategia gobernatu eta sari potoloa, maillot horia alegia, Bahamontesek etxeratu zuen. Azken etapan, Parisko Printzeen Parkean –saso hartan Tourra belodromoan bukatzen zen, Champs Elyseesen amaitu beharrean–, Anquetilek eta Rivierek zaleen txistuak entzun behar izan zituzten.

Munduko Txapelketak eman zion Anquetili urtea ahogozoz bukatzeko aukera. Izan ere, berak ez zuen irabazi, baina bereak eta bi egin zituen Darrigade lagun minaren mesedetan eta Landetako semeak ortzadar maillota irabazi zuen. Hain justu ere, Anquetilek sekula jantzi ez zuena. Les Nationsen parte ez hartzea erabaki zuen Jacquesek, bestalde, eta Italiako Baracchi sarian, zaharrak berri; hirugarren bukatu zuen Anquetil-Darrigade bikoteak.

Agur eta ohore, Fausto

1959ko azkenak eta 1960ko lehenak hilabete beltzak izan ziren ziklismorako, benetan. Txirrindularitzatik kanpo ere oso oihartzun handia izan zuen Fausto Coppiren heriotzak. Urtarrilaren 1ean, bere herrian, Novi Liguren zendu zen. Aurreko urteko azken egunetan gaixotu zen italiarra, Afrikako Alto Voltan, oraingo Burkina Fason. Hainbat ziklista lasterketa batean lehiatzera joan ziren bertara, tartean Coppi eta Anquetil. Bertsio ofizialaren arabera, malariak jota hil zen campionissimoa. Anquetilek gerora gogora ekarri zuen oroimenean gordetako azken irudia: Coppi eta bera, elkarren ondoan, eserleku luze batean eltxoak gainetik kendu ezinik... Italiarrari gertatutakoa magia beltzarekin lotu zuenik izan zen.

Coppiren heriotzak atsekabe handia eragin zion Anquetili, bere idoloa izan baitzen gazte garaian. Bestalde, Jacquesek profesioaletan izandako lehen zuzendaria, Pelissier xelebrea, ustekabean hil zen, bihotzekoak jota. Bi ez, hiru albiste latz jaso zituen hilabeteotan Anquetilek: Gerard Saint ziklista gaztea zendu zen urte hasieran auto istripuan. Adituen arabera, Saintek hartu behar zuen Frantziako ziklismoaren lema, Anquetil gainbeheran hastean. Saint izan zen aurreko urteko Paris-Niza-Roma probako izen nagusietako bat.

Maglia arrosaren bila

Urte hasierako samina atzean utzi eta Giroa buruan zuela entrenamendu saioei ekin zien Anquetilek. Janine emaztea auto gidari, 50 kilometro orduko abiaduran, eta bera atzean, pedalei kea zeriela. Italian, bigarren urtez jarraian, Gaul eta Anquetilen arteko lehia estua aurreikus zitekeen, eta aurreikuspenak bete egin ziren. Eta aurreko urtean bezalaxe, proba azken erlojupeko saioan eta azken mendiko etapan erabakiko zen. Anquetilek erakustaldia eman zuen erlojuz kontrako proban. Enegarrena. Gastone Nencini italiarra ia lau minutura gelditu zen sailkapen nagusian etapa eta gero, eta Gaul, zazpi minutu eta erdira. Nahikoa? Hori ikusteko zegoen, aurreko urtean Gaul lasterketa iraultzeko gauza izan baitzen azken mendiko etapan. Dolomitetakako bihotzean, Bormiora bidean, Gavia igota, Gaulek jo zuen, baina Anquetilek kontrolpean izan zuen une oro Luxenburgoko igotzaile aparta. Nencinik, ordea, buruhauste gehiago eman zizkion. *Mugelloko lehoia* oso trebea zen maldan behera eta oso estu hartu zuen maglia arrosa. Ozta-ozta eutsi zion lehen postuari Jacquesek, 28 segundorengatik. Horrenbestez, Anquetil Italiako Giroa irabazten

lehen frantziarra izan zen. Bigarren itzuli handia zuen, 1957ko Tourra eta gero.

Giroa poltsikoan, eta Frantziako selekzioan giroak gaiztotuta jarraitzen zuela ikusirik, Tourrera ez joatea erabaki zuen Anquetilek. Hain zuzen ere, Italiako itzulian jo eta ke ibilitako Gastone Nencini italiarrak irabazi zuen Frantziako itzulia. Hala ere, itzuli hartaz italiarraren garaipenaren gainera, txirrindularitzari buruzko liburuek eta entziklopediek eroriko bat gogora ekartzen dute. Roger Riviere Frantziako taldeburua amildegia batetik behera jausi eta bizkarrezurra hautsi zuen. Agur. Tourrari bakarrik ez, ziklismoari agur esan behar izan zion behin betiko Riviere koitaduak.

Urtea agurtzeko, Luganoko erlojupekoa irabazi zuen Jacquesek. Les Nationsen, aurreko urtean bezala, ez zen lehiatu eta Baracchitik, osteraren ere, esku hutsik itzuli zen etxera.

Maisulana

Goseak amorratzen ekin zion Anquetilek denboraldi berriari. Horren adibide, lehen txanpan eskuratutako Paris-Niza eta Frantziako Kriteriuma. Horien ostean, bigarren Giroaren bila abiatu zen Italiara. Maglia arrosa jantzi zuen zenbait etapatan, baina Arnaldo Pambianco italiarrak etxeratu zuen itzulia. Azken etapek aproposak ziruditen sailkapen nagusian aldaketak eragiteko, Pordoi eta Stelvio bezalako mendateak igo behar baizituzten, baina ez zen halakorik gertatu.

Italiako Giroko arantza kendu nahian iritsi zen Tourrera. Lau urte joanak ziren aurrenekoz irabazi zuenetik. Aspaldiko partez, urak bare-bare zeuden Frantziako ekipoan. Taldeburua zen Anquetil. Bat eta bakarra. Horri esker, aurreko urteetan ez bezala, arnasa lasai hartu ahal izan zuen Marcel Bidot hautatzaileak. Sailkapen nagusiari begira, Charly Gaul zen kontrario nagusia, nahitaez kate motzean lotu beharrekoa. Anquetili bidea leundu zitzaion lehen egunetik, maillot horia jantzi eta Gaulek bost minutu galdu zituelako. Jacquesek handia egin zuen, benetan. Maisulana. Izan ere, lehen postuan egon zen lehen etapatik azkenera arte; aurretik soilik hiru txirrindularik egina zuten tamainako balentria, eta gerora beste inork ez du halakorik egin. Frantziako taldea jaun eta jabe izan zen 1961eko Tourrean. Itzulia bere liderraren mesedetan kontrolpean edukitzeaz gain, zakua bete etapa – bederatzi– eraman zuten.

Frantziako taldearen nagusitasunari aurre egiten saiatu zen Gaul Alpeetan, ez zuen Tourretik alde egin nahi dena eman gabe. Mendate bat jaisten, baina, erori egin zen eta, minaren minez, ez zen gauza izan Anquetil estu hartzeko. Lasterketa bukatzeko bi egun falta zirela, Bergerac eta Perigueuxen arteko erlojuz kontrako etapan eman zuen Anquetilek erakustaldia. 33 urte geroago, 1994ko Tourrean ibilbide berean baina kontrako norabidean, Perigueuxetik Bergeracera, Miguel Indurain nafarrak antzeko balentria egin zuen, hura ere bakarkako lanean. Azkenean, Carlesi italiarra bigarren postuan sailkatu zen eta Gaul, erorikoak eroriko, hirugarren.

Itzuliaren bukaeran, Parisko Printzeen Parkean elkartutako zale askok txistu egin zioten irabazleari. Jacques Goddet Tourreko zuzendariak ere ez zuen begiko izan Anquetilen erakustaldia eta “Les nains de la route” deitu zien itzulian parte hartu zuten ziklistei. Hau da, nanoekin alderatu zituen. Goddetek, baina, ez zuen esan, esate baterako, Pirinioetan, Super Bagneresera bidean, haize bortitzak geldiarazi zuela txirrindularien joa, aurrera egiteko nahikoa lan izan baitzuten. Roger Bastide

kazetariak, bere aldetik, honakoa idatzi zuen Tour hartaz: “Jacques Anquetilek ziklismoa zientzia zehatza bilakatu du 21 etapatan, baina, horretaz gain, emozioa eta zirrara kendu dizkio lasterketari. Oso erraza izan da, eta bere garaipenak bikaintasunaren kutsua izan du”. Eta irabazleak, Anquetilek berak, zer zioen? Bada ordura arteko garaipenik zailena izan zela, maillot horiari, egunetik egunera eutsi beharra, oso gogorra izan zelako, nola fisikoki hala psikologikoki. Beraz, ikuspegi zeharo ezberdinak. Kontrajarriak, guztiz.

Anquetil-Wiegant bikotearen haustura

Tourraren ostean, nola ez ba, kriterium dantza izan zen, eta Les Nations erlojupeko luzera bueltatu zen Anquetil, aurreko urteetan kale egin eta gero. Garaile irten zen eta bigarrenari, Gilbert Desmeti, bederatzi minutu atera zizkion. Pozik egoteko modukoa, ezta? Ba ez, kontrakoa. Mickey Wiegant zuzendariak ez zizkion denbora erreferentzia zuzenak eman, eta ondorioz, Anquetilek hustu behar izan zuen helmugaraino, Desmet gertu samar zuelakoan. Nahita edo nahi gabe gertatu ote zen ez dago garbi, baina Anquetil sututa jarri zen gertatutakoa jakin zuenean. Lasterketa hartan muturtu ziren txirrindularia eta zuzendaria.

Denboraldiaren hondarrean egin ohi ziren sari banaketa batean, bestalde, Anquetilek gerora bere aurkari izango zen ziklista gazte batekin topo egin zuen, artean zaleentzat nahikoa ezezaguna zena: Raymond Poulidor...

Anquetil-Geminiani-Altig koktel arriskutsua

Ordura arte solik Philippe Thysek eta Louis Bobetek egindakoa berdintzeko asmotan, hau da Tourra hirugarrenez irabazteko xedez, atera zuen bizikleta ganbaratik Anquetilek, negu partean indarberitu ostean. Bere taldean aldaketak izan ziren. Nagusia, zuzendariarena. Aurreko denboraldiaren bukaeran gertatutakoagatik Anquetil eta Wiegant banandu egin ziren, eta Raphaël Geminiani txirrindulari ohia izendatu zuten ACBB Saint Raphaël-Helyett Hutchinson taldearen zuzendari. 1958ko Tourrean bien artean irekitako zauriak –Geminianik traidoretzat jo zuen Anquetil, Tourra irabazteko aukerarik ez zuela eraso egin eta maillot horia Gaulen esku jarri zuelako– guztiz itxita zeuden. Edo hala zirudien behintzat.

Baiona eta Donostia arteko sufrimendua

Denboraldi hartako lehen erronka handia Espainiako Vuelta izan zen. Hiru itzuli handiak irabazten lehena izan nahi zuen Anquetilek eta horretarako Vuelta geratzen zitzaion. Baina itzulia aurrera egin ahala, ohartu zen bere taldekide batek ere, Rudi Altig alemaniarrek, itzulia irabazi nahi zuela. Altigi lehen postua kentzeko azken aukera Euskal Herrian izan zuen Anquetilek, Baiona eta Donostia arteko erlojuz kontrako 82 kilometroetan. Baina saio hartan ere Altig garaile atera zen. Menderakaitza zen espezialitatean, erlojuz kontra, menderatu zuen alemaniarrek frantziarra. Atotxa futbol zelaia egokitu zuten etapa haren bukaera izan zedin; belodromo bilakatu zuten egun batez. Ezin aipatu gabe utzi futbol zelaia egin aurretik bertan belodromoa egon zela. Hortaz, Atotxa eta txirrindularitzaren arteko lotura estua lehenagotik zetorren.

Biharamunean, gaixo eta etsita erretiratu egin zen Jacques. Gerora aitortuko zuen hura izan zela ziklismoan igarotako unerik latzenetakoa. Jota bukatu zuela Vuelta eta txirrindulari izateari uztea ere pasatu zitzaiola burutik aitortu zuen Anquetilek.

Tourrean taldeka, ez herrialdeka

Atsekabeak atsekabe, Anquetilen helburu nagusia denboraldi hartan ez zen Vuelta, Tourra hirugarren aldiz irabaztea ezpada. Urte hartako Tourrean oso berrikuntza garrantzitsua izan zen. Herrialdeka ez, nork bere taldearekin parte hartuko zuen. Hasiera batean, Frantziatik errezelo handiz begiratzen zieten Italiako talde indartsuei, txirrindulari frantziarrak eramango zituzten beldur. Ordurako, Faema kafe

makina markak ziklismo talde bat babestu eta Belgikako txirrindulari indartsuenak fitxatu zituen. Faemak ez zuen lortuko Anquetilen nagusitasunarekin bukatzea, baina urte batzuk geroago Eddy Merckx handia fitxatu zuen.

Aldaketak alde ona zuen, jakina, herrialde bateko bi edo hiru ziklista irabazteko lehian egoteko moduan bazeuden, nor bere taldean egonik, ez zuten herrikideekin lehiatu beharrik izango taldeburu izateko. Anquetilentzat berritasuna ez zen guztiz ona izan, ordea. Urtetan haren alde morrontza lanetan aritutako Darrigade adiskidea ez zuen aldamenean izango. Anquetil ACBB-Saint Raphaël-Helyett-Hutchinson taldeko liderra zen eta Darrigadek Leroux-Gitane-Dunlop taldeko elastikoa jantzi zuen.

Frantziako itzuliari begira eta Espainian Altig taldekidearekin gertatutakoa ikusirik, Jacquesek ez zuen Geminiani begi onez ikusten zuzendari bezala, eta hara nor eta aurreko zuzendaria, Wiegant, itzul zedin saiatu zen. Alferrik, ordea, taldekideak ez zeudelako ados. Charly Gaul luxenburgotarra, Federico Martin Bahamontes espainiarra, Gastone Nencini italiarra eta Rick Van Looy belgikarra ziren, hasiera batean behintzat, Anquetilen aurkari nagusiak lehen posturako borrokan. Eta ezin aparte utzi Poulidor eta Simpson gazteak...Eta Altig *adiskidea*. Geminiani zuzendariaren kutuna zen Altig eta horregatik, ahaleginak eta bi egin zituen Anquetilen eta Altigen arteko harremana bideratzeko.

Aurrekoarekin ez zuen zer ikusirik izango urte hartako Tourrak, benetan. Zortzigarren etapan, Saint Nazairen hasi eta Luçonon bukatutakoan, 30 txirrindularik hanka egin zuten tropeletik, tartean Simpsonnek eta Poulidorrek, eta sei minutuko abantailarekin helmugaratu ziren. Ihesaldiari esker, sailkapen nagusiko hirugarren posturaino igo zen Erreterria-Oreterako Luis Otaño. Egun berean, arratsaldean, erlojuz kontrako saioan, Anquetilek burua altxatu zuen eta gailendu egin zen. Maillot horia, dena dela, urruti zegoen oraindik. Urruti bai, baina hura eskuratzeko aukerari eusten zion. Van Looy, berriz, Pabe eta Baiona artean erori egin zen eta astebete eman behar izan zuen ospitalean. Maillot horia ziklista batetik bestera zihoan, saltoka bezala: Darrigade, Schroeders, Simpson... Pirinioetan, Superbagnereseko krono igoeran, Joseph Planckaert belgikarrak jantzi zuen, eta hura soinean luze iraun nahi zuen, ahal bazuen azken bururaino, Pariseraino.

Alpeek ez zuten lasterketa irauli, eta ondorioz, liderraren elastikoa egun bakar batean ere eduki gabe iritsi zen Anquetil azken erlojupekorra. Gaul eta Bahamontes igotzaileek jai zuten, mendia joana baitzen. Planckaert zen liderra, minutu eta zortzi

segundoko aldearekin Anquetilekiko. Eutsiko al zion lehen postuari belgikarrak ala *Maître Jacques* enegarren erakustaldia eman eta Tourra poltsikoratuko zuen? Apustua zegoen, zinez. 68 kilometro egin behar zituzten bakarka, Bourgoin eta Lyon artean. Nork bere indar eta abileziarekin. Anquetilek ez zuen kale egin. Baldini italiarra izan zen etapa hartan hiru minutu azpitik iritsi zen bakarra. Gainontzekoak, tokitan. Ordura arteko maillot horiak, Planckaertek, 5 minutu eta 19 segundo gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Anquetilek Tourra hirugarrenez irabazi zuen, Planckaertek bigarren postuari eutsi zion azken sailkapenean eta Poulidorrek hirugarren bukatu zuen. Aurrerago ere elkar ikusiko zuten podiumean Anquetilek eta Poulidorrek.

Denboraldia amaitu aurretik, Italiako proba madarikatuan parte hartu zuen Anquetilek, bikoteka egiten zuten Baracchi erlojupekoan. Norekin eta Altigekin, Espainiako Vueltan gorriak ikustarazi zizkion taldekidearekin. Jacques ez zen sasoiari iritsi proba horretara eta Altigi ezin jarraiturik egin zuen ibilbidearen zati bat. Ezin izan zion kasik txandarik eman. Are gehiago, nekearen poderioz helmugara iritsi eta hesi baten kontra jo zuen Anquetilek; odoletan bukatu zuen, noraezean. Eraitza? Ba aurreko urteetan lortzerik izan ez zuena: garaipena!

Ur gainekeo aparretan

Goia jotzeko garaia zuen Anquetilek. 29 urte zituela, denboraldi hasiera harrigarria egin zuen 1963an. Hasteko, Paris-Nizan garaile, eta jarraian Frantziako Kriteriuma patrikara. Lasterketa bitxia zen Frantziako Kriteriuma, izan ere, egun bakar batean hiru proba jokatzeko zituzten. Goizean lehena, eguerdian bigarrena eta arratsaldean, azkena, erlojupekoa. Hiru saioen denborak batuta erabakitzen zen irabazlea. Iragan urtean bezala, udaberrian Espainiako Vueltan lehiatu zen Jacques; Altigen suak eta gaixo egon izanak utzitako oroitzapen garrantza ezabatu nahi zuen. Baita lortu ere. Erraz antzean nagusitu zen, nahiz eta egun txarrik ere izan zuen. Horren erakusgarri, Pacheco espainiarra Sitges eta Tarragona arteko erlojuz kontrako etapen ezustean nagusitu izana.

Espainiako Itzulia bukatuta, Anquetilek Frantziako Tourra prestatzeko antolatzen ohi duten Dauphine-Libere lasterketan ere parte hartu zuen, eta hura ere irabazi zuen. Garaipen zerrenda luze horrek arrastoa utzi zion, noski. Nekea, alde batetik, eta gaixotasuna bestetik; eginiko elektrokardiograma ez zen nahi bezain garbi ateratu eta, gainera, duodenoa handitu egin zitzaion. Hori horrela, bazirudien urte hartako Tourrari uko egin beharko ziola. Azken unean, ordea, sendagileek argi berdea eman zioten. Tourra laugarrenez irabazten lehena izatea bazen nahikoa erronka. Baita punta-puntako ziklista askori aurrea hartzea ere. Gaul, Bahamontes, Van Looy, Poulidor, Anglade taldekide ohia, Desmet gaztea... Eta ahaztu barik urte hartan aurrenekoak lehiatuko zela Euskal Herriko Kas taldea, Dalmacio Langarikaren esanetara. Kontrarioak bakarrik ez; ibilbidea bera ere ez zen Anquetilentzat oso egokia. Erlojuz kontrako etapak laburragoak ziren, eta mendate ugari zegoen helmugatik gertu, igotzaile petoen zorionerako.

Urte hartan bai, Pirinioek eta Alpeek ikuskizun ederra eskaini zuten. Edo hobeto esanda, ziklistek ikuskizun bikaina eskaini zuten bi mendilerroetako aldapatzarretan. Pirinioetan, adibidez, Anquetilek berak irabazi zuen Pablen hasi eta Bagnères de Bigorren bukatutakoa. Dena dela, aurkariak ez zeuden Tourra oparitzeko moduan, eta Van Looy Aurillacera bidean, maldan beheara, erakustaldia eman zuen. Eta Alpeetan, Val d'Iseren lehen postuan jarri zen Bahamontes; hiru segundoko abantaila zuen Anquetilekiko. Alpeetako azken etapak, Val d'Isere eta Chamonixen artekoak, ikusmin handia piztu zuen. Poulidorrek eta Bahamontesek jo zuten, baina Anquetilek eutsi egin zien biei. Ez hori bakarrik: esprintean etapa irabazi zuen eta, helmugara

iritsitako lehen sailkatuen artean banatutako gainsariei esker, lehen postua eskuratu zuen. Aurkarien enbidoari, Anquetilek hordago, beraz. Parisera iritsi aurreko egunean jokaturako erlojupekoa, nola ez bestela, berak irabazi zuen. Bi espainiar, Bahamontes eta Perez Frances, izan zituen ezker-eskuin Parisko Printzeen Parkeko podiumean.

Ohi legez, Tourraren ostean kriteriumak eta omenaldiak barra-barra iritsi zitzaizkion Anquetili. Gorazarre ekitaldietako batean, Ray Sugar Robinson boxeolari estatubatuarrekin eta Yuri Gagarin espaziora Vostok 1 kohetean bidaiatu zuen sobietarrekin elkartu zen.

Jacquesek ezin izan zuen Italiako Baracchi lasterketan aurreko urteko garaipena errepikatu eta lehen postuetatik urrun bukatu zuen. Aipamena, dena dela, merezi du, aurrerantzean bere aurkaririk handiena izango zen Poulidor izan baitzuen bikotekide.

Denboraldia bukatu aurretik oso garbi zuen Anquetilek 1964. urterako erronka: Giroa eta Tourra, bata bestearen ondotik, bigarrenez irabaztea.

Ordura arteko denboraldi biribilena bukatu berria zuen Anquetilek. Ez zegoen dudarik. Tourra, Vuelta, Paris-Niza, Dauphine-Libere... Kiroletik landa, 1963ak, baina, ez zion batere oroitzen onik utziko. Frantziak emandako musikari handienetako bat zendu zen: Edith Piaf. Jacques eta Janine senar-emazteak Piafen azken emanaldietako batean izan ziren Parisko Olympia antzokian. Emanaldiaren ostean, artistaren aldagelan elkar ezagutzeko aukera izan zuten. Frantziak XX. mendean emandako musikari eta kirolari handienetako bi aurrez aurre izan ziren, instant batean izan bazen ere. Are albiste beltzagoa jaso zuen Anquetilek handik egun gutxira: aita hil zitzaion auto batek harrapatuta.

Sumendiaren epaia

Gorputzaldi egokia lortzeko asmoz, ia urtero bezala, Paris-Nizan lehiatu zen Jacques 1964ko hasieran. Ez zuen irabazi, eta bi urte lehenagoko ezin ikusiak errepikatu egin ziren Altig alemaniarra eta bere artean. Azken etapan hirugarren postuari eutsi nahi zion Altigek. Anquetilek ez zuen podiumera igotzeko aukerarik, baina lasterketa biziki gogortu zuen. Altigek taldekidearen jokabidea gaitzetsi zuen, nahiz eta alemaniarrek azkenean lortu egin zuen hirugarren bukatzea. Paris-Nizan garaipenik ez, baina Anquetilek ez zuen esku hutsik iritsi nahi Giroko irteerara. Hala, Belgikan jokutzen den Gant-Wevelgem klasiko ospetsua eskuratu zuen. Erlojuz kontrako klasiko asko irabazia zen ordurako, baina hura izan zen aurkariak ondoan izanik erdietsitako lehena.

Italiarren arteko inbidia, alde

Giroari dagokionez, goiz samar soineratu zuen maglia arrosa; nola ez, erlojupekoa irabazita. Duda-mudatan ibili ziren taldean. Liderraren elastikoari eusten saiatu behar al zuten horrek ekarriko zien nekea kontuan hartuta? Bai ba. Italiarren batek jantziz gero nekez berreskuratuko zutela deliberatu zuten. Estuasunak eta bitxikeriak izan zituen Italiako itzuli hark Anquetilentzat. Alde batetik, Livorno eta Santa Margarita artean ererikoa izan zuen eta jazarpen proba egin behar izan zuen helmugara bitartean; 33 segundorengatik eutsi zion magliari. Beste etapa batean, Gianni Motta italiar gazteak eraso jo eta estu hartu nahi izan zuen sailkapenaren burua. Hala ere, eta Anquetilen harridurarako, beste italiar batzuen ekimenez Mottaren ahalegina ezer ezean gelditu zen. Zergatik? Ziurrenik Italiako oilarrek ez zutelako nahi inork haiei protagonismoa kentzea, are gutxiago herrikide umemoko batek... Are bitxiagoa izan zen zulatu batek eragindakoa. Anquetilen gurpila aldatu eta autoaren gurpila bera ere zulatuta zutela ohartu zen Geminiani zuzendaria. Nola atara ataka zail horretatik? Kotxeak ezin zuen aurrera egin eta Jacquesek berriz ere zulatua izanez gero, nola arraio moldatu behar zuen? Zuzendariak mekanikaria bizikleta gainean bidali zuen, ziklista baten moduan, Anquetilengandik ahalik eta gertuen egoteko aginduarekin. Mekanikari gizajoak, jakina, gibela bota behar izan zuen Anquetili jarraitzeko...

Aurkaririk zitalena... Belline igarlea

Denboraldirako aurrez finkatutako helburuaren erdia beteta zegoen. Tourra falta zen. Urte hartan ere, aurkaririk ez zitzaion faltako Anquetili. Hasteko, Poulidor; Espainiako Itzulia irabazita iritsi zen Frantziako Itzulira. Tourra herrialdeka jokatzen zenean Anquetilen mesedetan aritutako Anglade beste talde baten burua zen. Paris-Niza irabazi zuen Jan Janssen ere kate motzean lotu beharrekoa zen. Baita Van Looy, Simpson eta 1959ko Tourra irabazi zuen Bahamontes ere. Altigekin ere, taldekide izan arren, ez zen batere fio Anquetil. Haien arteko borroketan, bereziki 1961eko Vueltan, sorturiko mesfidantzak bere horretan jarraitzen zuen. Txirrindulari horiek guztiak zaindu behar zituen Anquetilek... eta baita Belline ere. Bellinek ez zuen inongo taldetan parte hartu behar, ez zuen pedalkadarik eman behar, baina ezinegona eta beldurra eragin zizkion Anquetili. Bai horixe! Belline igarlea zen eta Anquetil 14. etapaz haratago ez zela joango iragarri zuen *France-Soir* kazetan. Iragarpen beltza, inondik ere. Erori egingo al zen? Gaixotuko al zen? Hil egingo al zen?...

Tour haren hasieran jokatutako taldekako erlojupekoak esanahi berezia izan zuen euskal ziklismoarentzat, Langarikak zuzendutako Kas taldea nagusitu baitzen. Alpeetako etapak Janssenek eta Bahamontesek irabazi zituzten. Aurkariak hortzak erakusteko gogoz bazebiltzan ere, Anquetilek, bere aldetik, bere burua erakutsi nahi izan zuen eta Monakon eta Toulonen aurrena helmugaratu zen. Bi etapa garaipen zakura. Beste behin ere, enbidoari hordago. Dena dela, eta ustekabea, Groussard frantziarrak zuen soinean maillot horia.

14. etapa atsedean egunaren ondotik iritsiko zen, tropela Andorran zegoela. Gorriz –edo beltzez– azpimarratutako etapa iritsi zen, Anquetilek Tour hartan korrituko zuen azkena, beti ere Belline iragarlearen arabera. Nola kendu burutik iragarpen madarikatua? Geminiani zuzendaria bera ere urduri zegoen, eta Anquetilen emazteari, Janineri, Andorrara joateko eskatu zion, atsedean egunean behintzat Jacquesek burua beste zerbaitetan jar zezan. Eta beste zerbait hori barbakoa moduko bat izan zen. Anquetil bizizalea zela jakina zen, baina jokabide hark sumindu zituen aurkari batzuk, harropuzkeriatzat jo zuten. Nola da posible Tourra jokoan izanik atsedean egunean barbakoa batera joatea? Hurrengo egunean, 14. etapan, larrutik ordainaraziko ziotela zin egin zuten.

“Goiz hartan, presoak fusilamendu pelotoiaren aurrera nola, hala eraman behar izan nuen Anquetil irteerara”. Geminiani zuzendariaren hitzak dira. Anquetil beldurraren beldurrez zegoen. Etapa hasi eta segituan, Envalira mendate luzea igo behar zuten,

eta Poulidor eta Bahamontes egurrean hasi ziren. Bezperako barbakoa ondo ondo pairatzen hasi zen Anquetil nonbait, jota geratu zen, ezin pedalak jiratu. Lasterketa galtzeko zorian zen. Louis Rostollan taldekidea izan zuen ondoan Envalirako gainerainoko bidean, herio batean: “Gaur hil behar baduzu, izan bedi lasterketa lehiatzen eta ez hemen, tropelaren atzealdean!”, oihukatu zion zuzendariak. Bahamontesek eta Poulidorrek lau minutuko aldea zuten mendate pankartan Anquetilekiko. Behin tontorra harrapatuta, ziztu bizian abiatu zen Jacques, hil edo bizi. Gorputzaldiari buelta eman eta Okzitaniako Tolosako helmugara iristeko 20 kilometro falta zirela, harrapatu zituen ihesean zebiltzanak. Eta ez hori bakarrik: Poulidor, matxura baten erruz bizikleta aldatzera zihoala, erori egin zen eta bi minutu eta erdi galdu zituen. Poulidorrek etapa zirraragarri hartan gertatutakoaz hauxe esan zuen helmugan. “Envalirako jaitsieran zegoen lainoak Anquetilen alde egin du, izan ere, haren aurretik zihoazen autoak argiak piztuta jaitsi dira eta horrek erreferentzia gisa balio izan dio. Nire morala erdira jaitsi da; nire buruari galdetzen diot ondorengo etapetan erasotzeko gai izango ote naizen, eta gainera edozer gauza espero daiteke Anquetilengandik, bai baitaki borroka egiten”. Edward Sels belgikarrak irabazi zuen etapa, baina Anquetilen txakalaldiak aurrena eta aurkariaren zorte txarrak ondoren estali zuten zeharo belgikarraren lorpena.

Zorigaiztoak eragindako amorrazioak bultzatuta, Poulidorrek eraso jo zuen biharamunean, Luchonera bidean, eta etapa irabazi zuen. Eguneke azken mendatea, Portillon, amorrazioak jota igo zuen. Eguneke ihesaldian zebilen Gabika bizkaitarrak Poulidor ondoan ikusitakoan, bere atzetik ateratzen ahalegindu zen, harena helmugara iristeko jarraitu beharreko gurgila zelakoan, baina ezin. Pirinioetako azken etapan, Paben amaitutakoan, Bahamontesek handia egin zuen. Etapa irabazi zuen eta lasterketa bere alde iraultzeko zorian egon zen. Zale askok Poulidorren beste eraso kolpe bat espero zuten, baina aurreko eguneke nekea sumatu zuen eta tropelean helmugaratu zen. Maillot horia Groussardek zeraman oraindik ere. 17. etapa Euskal Herrira iritsi zen, Baionara hain zuzen ere. 42 kilometroko erlojupekoa. Anquetilek irabazi eta Tour hartan aurrenekoz lider jarri zen. Poulidorrek, berriro ere, zoritxararekin topo egin zuen. Erlojupekoa irabaztekotan zela, gurgila zulatu zitzaion eta mekanikaria bera, matxura konpondu eta gero, estropezu egin eta lurrera erori zen. Horregatik guztiagatik, segundo preziatuak galdu zituen Poulidorrek. Hala eta guztiz ere, Jacquesengandik 56 segundora zegoen sailkapen nagusian.

Gauzak horrela, itzulia erabakita zegoela pentsatuko zuen batek baino gehiagok,

baina oker zebiltzan. Izan ere, ziklismoaren historiara pasatu zen etapa gogoangarria falta zen, karreristak Clermont Ferrandeko sumendiraino, Puy de Domeraino, eramango zituen etapa. Azken suziria. Nork eta Geminianik, Anquetilen zuzendariak, proposatu zien Tourreko antolatzaileei lasterketa sumendiraino iristea 50eko hamarraldiaren hasieran, bera artean txirrindulari profesionala zela. Clermont Ferrand Erdialdeko mendigunean dago. Bertan sortu zen Michelin gurpil enpresa ezaguna XIX. mendearen bukaeran.

1.465 metroko garaiera du Puy de Domek. Tourmalet, Galibier, Izoard edo Iseranen itzalean da, horiek guztiak altuagoak baitira, baina penditza oso tentea du igoerak, bereziki azken lau kilometroetan. 500.000 lagun elkartu omen ziren mendatean, Anquetil eta Poulidorren arteko norgehiagoka bertatik bertara ikusteko. Milioi erdi zale. Mundu bat. Eutsiko al zion Anquetilek? Poulidorrek maillot horia kenduko al zion? Anquetilek behin bakarrik igota zuen mendatea, 1959ko Tourreko krono igoeran; Poulidorrek, berriz, lehenengo aldiz ekingo zion.


Uztailak 12. Igandea. 10:00etan abiatu zen tropela Brivetik. Luis Otaño errenteriarra eguneko ihesaldian ibili zen, eta lasterketaren buruan, beste txirrindulari batzuen aldamenean zihoala, erori egin zen. Zorigaitzoko dirusaria zeritzona eman zioten etapa bukaeran Otañori: 500 libera.

Puy de Domeko maldetan –ordurako tropela bat eginda zihoan– bi espainiar, Julio Jimenez eta Federico Martin Bahamontes, etaparen bila abiatu ziren, baina lehia hura bigarren mailakoa zen egun hartan. Espainiarrak oso urruti zeuden sailkapen nagusian. Anquetilek eta Poulidorrek elkarren ondoan egin zuten mendatearen zatirik gogorrena, ahaleginaren ondorioz euren sorbaldek elkar ukitzeraino. Haien atzetik beren taldeetako autoak. Mekanikariak, autoaren goiko aldean eserita zihoazen, matxurarik izanez gero segituan konpondu ahal izateko. Gaina harrapatzeko kilometro eta erdi falta zela, Anquetilek, itota, ezin izan zion Poulidorri jarraitu. Ahituta zegoen. Apurka-apurka Poulidorrek liderrarekiko aldea handitu zuen, bere zaleen zoramenerako. Poulidor helmugara iritsi eta berehala kronometroen dantza hasi zen. Bat, bi, hiru, lau... 57 segundo behar zituen sailkapenaren buruan jartzeko. Poulidorrentzat eta bere taldekoentzat kronometroa motelegi zihoan. Ia geldirik zegoen. Azken aldapetan zebilen Anquetilentzat eta bere zuzendariarentzat, Geminianirentzat, berriz, azkarregi. Anquetilek bil-bil eginda egin zituen azken metro haiek. Infernurako bidea irudituko zitzaion arratsalde hartan sumendiko gainerainoko malda. Irtsi zenean, albiste ona eman zioten. 43 segundo

baino ez zituen galdu. Horrenbestez, hamahiru segundorengatik lider jarraitu zuen. “Badakit azken aukera nuela eta espainiarren atzetik atera behar nuela haiek aurrera jo dutenean, baina lehertzeko beldur nintzen”, aitortu zuen zintzo Poulidorrek. *Anquetil, garailea; Poulidor, heroia*, idatziko zuen Jacques Goddet Tourreko zuzendariak itzulia bukatutakoan.

Parisera iritsi aurreko erlojupekoan –*Le combat suprême*, L’Equipe kazetaren egun hartako azalean– Poulidor ustekabea ematen saiatu zen, eta ez zen oso aparte ibili. Jacques hobeto hasi zen, baina ibilbidearen erditik aurrera, Poulidorrek apurka-apurka abantaila jan zion aurkariari.

Helmugarako hiru kilometro falta zirenean, Anquetil denborarik onena egiten ari zen, baina hiru segundoko aldea besterik ez zuen Poulidorrekiko. Epikotasunak goia jo zuen Poulidor helmugara iritsi eta inguratu zitzaizkion guztiek, uneko beroaldiak eramanda, irabazlea izango zela esan ziotenean. Informazioa okerra zen, ordea. Anquetil ibilbidean zen oraindik eta azkenean, sailkapen nagusian abantaila handitu egin zuen: 45 segundo. Parisen, Poulidor eta Bahamontes izan zituen aldamenean Jacquesek. Bosgarrenez igo zen podiumeko koskarik gorenera. Anquetil eta Poulidorren arteko lehia horren estua izan zenez, zeharo hunkigarria izan zen, bi ziklistek, lore sorta bana eskuan zutela, Printzeen Parkeko belodromoari emandako ohorezko itzulia. Askorentzat 1964koa da inoiz jokaturako Tourrik zirraragarriena.



Puy de Domeko etapa abiapuntutzat hartuta, *Duel sur le volcan* titulupeko liburua – norgehiagoka sumendian– idatzi zuen Christian Labordek.

Bordele-Paris lasterketa mitikoa

Urte berria eta talde berria. Ford-Gitane taldean aritu zen Anquetil 1965ean, nola ez ba Geminiani zuzendaria ondoan zuela. Urte hasieran, ziklismoa bigarren mailan utzi eta biek Montecarloko rallyan parte hartu zuten. Beste hainbatetan bezala, sesioan aritu eta muturtuta bukatu zuten... Dena dela, aurreko –eta ondorengo– haserrealdi guztietan bezala, otordu on batek giroa baretu egin zuen. A ze parean, karakola eta barea dio esaera zaharrak...

Auto lasterketak alde batera utzi eta txirrindularitzari helduta, Anquetilek denboraldi hasieratik argi utzi zuen ez zela Tourrean izango. Horrek baina, ez zuen esan nahi egonean emango zuela urtea. Horren lekuko, Paris-Niza irabazi izana, norekin eta Altigekin dema estua eduki eta gero. Ordurako, bi ziklistok ez zeuden talde berean. Paris-Niza ostean, denboraldi hartako helburu nagusiari ekin zion: maiatzean Dauphine-Libere eta Bordele-Paris lasterketak irabazten saiatuko zen. Zer zeukan horrek zailetik? Ba Dauphine astebeteko itzulia bukatu eta ordu gutxira jokatzen zela Bordele-Paris klasikoa. Eta klasiko horrek 557 kilometro zituela...

Geminianik aspaldi zuen erronka buruan, baina ez zen esatera ausartu ere egiten, Anquetilek ezezko borobila emango zion beldur. Baita asmatu ere. “Ez dut sekula parte hartuko ero lasterketa horretan”, bota zion Anquetilek.

Hori horrela, Geminiani zakur zaharrak eta Janine Jacquesen emazteak zeharka aitatzen zuten gaia eta ezinezkotzat jotzen zuten, Anquetil xaxatu nahian. Jacquesek azkenean amua irentsi zuen. Inor bi lasterketok elkarren segidan irabazteko gai bazen, bera zen, Munduko ziklistarik onena zelako. Kitto.

Dauphine-Liberen gailendu zen Anquetil, Poulidorren aurretik. Garaipenarekin gozatzeko astirik ez zuen izan: 17:00etan podiumera igo zen eta bi ordu geroago Bordelera eramango zuen hegazkinean zegoen. Bordele-Paris klasikoa 01:30ean abiatu zen. Udaberria izanagatik, hotz egiten zuen, euria ari zuen... Ziklistak mahuka luzeko maillotekin abiatu ziren eta buruan, kotoizko txanoak. Talde bakoitzak hiru ziklista eramane zituen. Ford-Gitaneri zegokionez, Anquetili laguntzeko Stablinski taldekide fina eta Denson. Ziklistak lo hartetik gertu izaten ziren, gau osoa, ilunpetan, pedalei eragin behar baitzieten. Anquetilek mina zuen eztarrian eta abiatu aurretik emazteari adi egoteko eskatu zion, erretiratuko zela eta bere bila joateko. Janine etxean zegoen, telefonoari pega-pega eginda, deia noiz iritsiko zain.

Goizean, ziklista guztiak bizikletatik jaisten ziren beren burua apur bat txukuntzeko. Anquetilek lasterketa utzi nahi zuen. Akabo. Usteak erdi ustel. Beste behin ere, Geminianik hordagoa jo zion aurrez aurre; “Koldarra halakoa!”, bota zion, eta Anquetilek mekanikariari azkar demonio bizikleta kotxetik ateratzeko agindu zion. Bere burua halamoduz txukundu ondoren, lehian zen berriz ere. Bordele-Paris lasterketa bitxia zen. Lehen zatian lasai antzean aritu ondoren, erditik aurrera, pistan ohikoa den legez, motorren atzetik abiatzen ziren ziklistak, azkarrago joateko.

Probaren azken zatira lau karrerista iritsi ziren lasterketaren buruan. Mahe –lehen postuan izan zen kilometro askotan–, Simpson, Stablinski eta Anquetil bera. Errepide bazterretan, jendetza izugarria. Mahe izan zen, nekearen poderioz, laukotean amore ematen lehena; ihesean egindako lanaren ordaina. Helmuga, Tourrean bezala, Printzeen Parkean kokatu zuten eta handik gertuko Picardieko muinotxoan jo zuen aurrera Anquetilek. Stablinski taldekideak, jakina, ez zuen jarraitzeko imintziorik ere egin eta Simpsonek ere ez zuen Jacquesen zartakoari erantzuteko nahikoa indarrik izan; ingelesa hustu egin zen kilometro batzuk lehenago ihesean zebiltzan Mahe eta Stablinski harrapatu nahian, eta larrutik ordaindu zuen Jacquesek jo zuenean. Bordeletik atera eta 15 ordu 2 minutu eta 33 segundo geroago iritsi zen Anquetil Parisera. Eta egun hartan bai, Tourra 1961ean lehen egunetik azkenekoraino menperatu zuenean ez bezala, zaleek txaloka hartu zuten, harrera beroa egin zioten. Gerora aitortuko zuen Anquetilek negar batean egin zuela etxerako bidea, zeharo hunkituta, behingoz zaleen babesa sumatu zuelako.

Helburu nagusia lortuta zegoen, baina zuku gehiago aterako zion denboraldiari. Bizikleta gainean berriz ere jarri aurretik, bertatik bertara ikusi nahi izan zituen Tourreko hainbat etapa errepide bazterretik, zale arrunt bilakatuta, eta Frantziako zale askok bezala, berak ere ustekabea eraman zuen Gimondik irabazi baitzuen Tourra, ia denek Poulidor faborito argia jotzen zuten arren. Anquetil gabe ere, *Poupouk* ezin izan zuen maillot hori preziatua etxeratu.

Munduko Txapelketa, Lasarten

Munduko Txapelketak Euskal Herrira ekarri zuen Anquetil berriz ere, Lasarten jokatu baitzen. Anquetilek, Poulidorrek edota Van Looyk lasterketa ikusgarria egingo zutela uste zuten zaleek eta hura izan zen, hain zuzen ere, Anquetilek ondoen prestatutako Munduko Txapelketa. Ibilbide gogorrean jokatzen zenean begiz jotzen zuen Anquetilek Munduko Txapelketa, eta Lasartekoa gorabeheratsua zelakoan gogotsu

etorri zen. Ez zen, ordea, irabazteko lehian egon eta 17. postuan bukatu zuen. Altig alemaniarrek eta Simpson ingelesak ihes egin zuten tropeletik eta esprintean erabaki zen garailea; Simpson gailendu zitzaion Altigi. Azken emaitzak zaleak atsekabetu zituen, ez hotz ez bero utzi zituen. Orduko hartan, txistuak eraman zituen etxera Anquetilek Euskal Herritik. Gauzak zer diren: gurean lortu behar zuen urte batzuk geroago bere kirol ibilbideko azken garaipen handia...

Eddy Merckx gazteak ere parte hartu zuen Munduko Txapelketa hartan. Gerora askoren ahotan inoizko txirrindulari onena izango zenak 20 urte baino ez zituen, baina ordurako askok begiz jota zuten. Tartean, Raphaël Geminiani Anquetilen zuzendariak. Geminiani Merckx fitxatzen ahalegindu zen. Ez zuen, ordea, helburua lortu. Anquetil eta Merckx ez ziren sekula taldekideak izango.

Munduko Txapelketa eskasa burutik kendu eta denboraldi bukaerako erlojuz kontrako klasikoei gogotsu eta sasoitsu ekin zien Jacquesek. Les Nationsen azken urteotako bere bi aurkari nagusiei gailendu zitzaien: Altigi eta Poulidorri. Luganoko erlojupekoa ere irabazi zuen eta baita Italiako Baracchi bera ere. Stablinski taldekidearekin parte hartu zuen Baracchin eta bigarrenez nagusitu zen. Bigarren garaipen hark lehenengoak baino zapore hobea utzi zion. Aurrekoan, begiko ez zuen txirrindulari bat izan zuen bikotekide, Altig, eta hori nahikoa ez eta odoletan bukatu zuen, helmuga gurutzatu bezain laster erori zelako.

Italiara eginiko bidaia hura, gainera, aspaldiko beste erronka bati hautsa kentzeko probestu zuten: Orduaren Errekorra. Vigorelli belodromoan entrenamendu saio batzuk egin zituzten, besterik gabe, baieztatzeko Anquetil gai zela indarrean zegoen marka, Roger Riviere herrikidearen marka –ordurako txirrindularitza utzia zuen Frantziako Tourrean izandako eroriko larriaren ondorioz– hausteko. Aurrerago, beharbada, Milanera itzuliko ziren...

Dopinaren orbaina

Anquetil eta Poulidor. Poulidor eta Anquetil. Frantziako bi txapeldunen arteko lehia legenda bihurtzeko bidean zen. Horren adibide, 1966ko udaberrian, Paris-Nizan, gertatutakoa. Poulidor lider jarri zen eta nork eta Anquetilen emazteak jarri behar izan zion liderraren maillota. Izan ere, Janinek karrerako babesleeta batekin kontratua zuen. Irudi bitxia inondik ere. Poulidorren zale batzuek bere ziklista kutunaren alde egin beharrean, Anquetilen aurka egin zuten lotsagabe eta bere emazteak epelak entzun behar izan zituen podiumean zegoela. Gauean, gertatutakoaren berri izan zuenean, Jacquesek, sututa, lasterketa uztea erabaki zuen. Azkenean, emazteak berak jarraitzeko konbentzitu zuen, gelditzen zen etapa bakarrean aritzeko konbentzitu zuen. Ez zen etapa hutsala izan inondik inora. Izan ere, Anquetilek itzulia irauli eta irabazi zuen. Bi ziklisten artean, Anquetil eta Poulidorren artean, liskarra izan zen proba bukatuta. Poulidorrek azken etapa hartan aurrera egiteko tenorean, abiadura azkartzeko, motor bati segika aritu izana egotzi zion Anquetili. Jacquesek, bere aldetik, ez zituen adierazpenok batere ondo hartu eta negarti hutsa zela leporatu zion aurkariari. Elkarri hitz egiteari utzi zioten bolada batez, baina berandu baino lehen adiskidetu ziren berriro ere.

Bitxia, benetan, gertatutako guztia. Are gehiago kontuan hartuta, urtebete lehenago talde berean aritzeko zorian egon zirela. Geminianik egin zion eskaintza Poulidorri 1965ean Ford taldera joateko; Anquetilek Tourra bost aldiz irabazi eta gero bere mesedetan egingo zuela lan ziurtatu zion Geminianik Poulidorri. Ideiak Poulidor asebeten zuen. Ez, ordea, bere taldeko nagusia, Mercier bizikleta dendako nagusia. Poulidor Anquetilen altzora joanez gero taldea desegingo zuela agindu zuen. Anquetil eta Poulidorren arteko lehiak ertz asko zituen, eta bizikleta denden arteko lehia ere bazen. Anquetilena, Helyett eta Poulidorrena, Mercier. Azkenean, Poulidorrek Mercier taldean jarraitzea erabaki zuen. Hori bai, ezin ahaztu 1963ko udazkenean elkarrekin aritu zirela Italiako Baracchi lasterketan Anquetil eta Poulidor besoz beso, elkarri laguntzen. Zale askoren oroimenean geratu zen lasterketa, noski, nahiz eta irabazi ez.

Paris-Nizan nagusitu eta aste gutxira, Anquetilek klasiko handienetako bat irabazi zuen, Lieja-Bastonge-Lieja. Puntako aurkariak utzi zituen atzean, hala nola, Janssen, Gimondi, Motta, Altig eta Merckx abizena zuen belgikar gaztea. Lasterketa hark hautsak harrotu zituen. Helmugara iritsita, mediku bat Anquetilengana hurbildu zen

eta dopinaren aurkako kontrola egin behar zuela esan zion. Anquetilek uko egin zion. Belgikan kontrolak bakarrik belgikarrek pasatzen zituztela eta aldez aurretik inork ez zuela kontrol horretaz ohartarazi arrazoitu zuen. Medikuek, bere aldetik, azkenean Anquetili arrazoia eman zion. Sendagilea bi arrazoirengatik ez zen tematu: Anquetil ez zelako belgikarra, batetik, eta berak bidezkoagotzat jotzen zuelako zozketa bidez erabakitzea nork egin beharko zuen dopinaren aurkako kontrola. Azkenean, Belgikako Federazioak ez zuen Anquetil zigortu eta irabazleen zerrendan bere izena ageri da.

Liejatik Montecarlora, bertatik abiatu baitzen Italiako Giroa. Lasterketa kontrako eztarritik joan zitzaion Anquetili. Lehen etapan ziklista indartsuenetako batzuek aurrera egin eta bera atzean geratu zen. Eta bera iaioena zen proban, erlojupekoan, Adorni italiarra gailendu zitzaion. Jacques azkar jabetu zen ez zuela maglia arrosa irabazterik izango, eta hobe zuela burua Tourrean jartzea. Hala ere, Giroko podiumera igo zen; hirugarren bukatu zuen, Motta eta Zilioli italiarren atzetik.

Deabrua eta inozoa

Ikusmin handia piztu zuen urte hartako Tourrak, berriz ere nor baino nor Anquetil eta Poulidor ariko baitziren. Gai izango al zen Anquetil seigarrenez maillot horia irabazteko? Lortuko al zuen, behingoz, Poulidorrek bere kontrario nagusia garaitzea? Poulidorrek Anquetil baino hobeto ekin zion. Hala ere, Pabera bidean gauzak okertzen hasi zitzaizkion. Ordura arte Altig ibili zen maillot horiarekin eta, horrenbestez, bera saiatu zen lasterketa kontrolpean edukitzen. Pabera bidean, baina, Altig gogaitu egin zen. Alemaniarrak ez zuen nahi tropela kate motzean lotzeko lan guztia bere taldearen bizkar uztea, hori ardura handia baitzen. Hori horrela, karrera zeharo erotu egin zen. Bederatzi ziklistek egin zuten aurrera aurrena. Beste 26 pixka bat geroago batu zitzaizkion bederatzikoteari. Eta Anquetil eta Poulidor, tropelean, atzean. Ziklistak oso sakabanatuta iritsi ziren helmugara, Pirinioetako Soulor eta Aubisque mendateak igarota, eta ihesaldietan ibilitakoek sailkapen nagusiaren lehen postuak bere egin zituzten. Anquetil eta Poulidor haiengandik urrun ziren. Jacques Goddet Tourreko zuzendariak *Deabrua eta inozoa* titulupeko editoriala idatzi zuen etaparen ostean, laburpen gisa. Hots, Anquetil izan zen deabrua, Lucien Aimar taldekidearen mesedetan, bere aurkari nagusia, Poulidor, hari itsatsita mantendu zuelako. Poulidorrek, aldiz, inozo jokatu zuen Goddeten iritiz, ihes egindakoen atzetik berehala ez atera izanagatik. Anquetilek botatako

amua irentsi zuen.

Alpeetara iritsita, aurreneko etapan, Anquetil atzean geratu zen, baina bigarreanean, Galibierren gora, eraso egin eta bakarrik Poulidor izan zen gauza haren atzetik abiatzeko. Maillot horia oraindik ere urrun zegoen, baina bi txapeldun handien arteko lehia gori-gori zegoen, Briançon eta Turin arteko etaparen atarian, hain zuzen ere. Anquetilen taldekide Lucien Aimarrek, Pabeko etapa eroan aurrean helmugaratu zirenetako batek, aurrera jo zuen Turinera bidean, abantaila handia hartu eta lider jarri zen. Anquetilek ezin izan zuen Parisera iritsi. Hiru etaparen faltan, bronkitisak jota, Saint Etiennera bidean bizikletatik jaitsi egin zen. Parisera Aimar gaztea iritsi zen horiz jantzita, bigarren izan zen Poulidorren etsipenerako. Anquetilen azken Tourra izan zen hura, 32 urte zituela. Horratx zenbakiak: bost aldiz sailkapen nagusiaren *Dopinaren orbaina* irabazlea, 15 etapa garaipen –haietatik 11 erlojuz kontra– eta 50 egun maillot horiarekin.

Tour hartan, dopinaren auziak ere oihartzuna izan zuen. Ziklistak kexu ziren dopinaren aurkako azterketak zirela eta. Ez zuten ulertzen zergatik horrenbesteko zorrotasuna bakarrik haiekin. Beste kiroletan halakorik ez zegoela salatu eta etapa baten hasiera oinez egin zuten, protesta bezala. 32 urte geroago, 1998an, Tourra hiltorian jarriko zuen Festina auziak eztanda egingo zuen...

De Gaullek saritu zuen

Alemaniarren Nurburgrin herrian jokatuak Munduko Txapelketa luxuzkoa izan zen, ziklista indartsuenak iritsi zirelako buruan azken kilometroetara. Altig alemaniarra atera zen garaile. Giroa gaiztotuta zegoen denboraldi hasieratik dopin aferarengatik, eta Munduko Txapelketa beste kate-begi bat izan zen. Helmugara iritsita, besteak beste, Mottak, Stablinskik, Poulidorrek eta Anquetilek ez ei zuten entzun dopinaren aurkako kontrola pasatzeko bozgorailu bitartez eginiko deia. Ondorioz, etxera joan ziren kontrolik pasatu gabe eta zigortu zituzten.

Lieja-Bastonge-Liejaren garaipena susmopean geratu izana, Giroa eta Tourra ezin irabazi, Munduko Txapelketan zigorra... Denboraldiaren zapora mikatza kentzea nahi zuen Anquetilek, kosta ahala kosta, eta bere lasterketa kutunean erdietsi zuen hori: Les Nationsen. Bederatzigarrenez irabazi zuen erlojuz kontrako klasikoa Jacquesek. Merckx gaztea eta Giroan bere aurretik sailkatutako Gimondi italiarra mendean hartu zituen. Anquetil eta Merckx lasterketa bateko lehen eta bigarren postuetan,

hurrenez hurren. Oraina eta geroa.

“Atleta bat dopatu egiten da azukre koskor bat hartzen duen momentutik”. Anquetilen adierazpenak dira. Denboraldi hartan piztutako sua amatatu beharreak are gehiago hauspotu zuen. De Gaulle jeneralak Ohorezko Legioaren zaldun izendatu zituen zenbait kirolari, tartean Anquetil. Bat batean, baina, sarituen zerrendatik desagertu egin zen. Zer gertatu zen? Nahigabe eginiko hanka sartzea izan al zen ala dopinaren inguruko gorabeherengatik gertatu zen hori? Kontuak kontu eta zalantzak zalantza, azkenean Anquetil saritu zuen De Gaullek, eta oroigarria jaso ostean, honakoa esan zuen Anquetilek dopinari buruz: “Txapeldun profesional batek etengabeko zaintza behar du, beti ere mediku batek gidatuta. Nire ibilbide luzeak agerian uzten du arlo honetan ez dudala inoiz gehiegikeriarik egin. Bestalde, ez dut sekula uste izan txapeldunik sor daitekeenik produktu miresgarriei esker. Eta hau guztia gazteei esateko prest nago”.

Urak ez ziren baretu, eta hilabete gutxi batzuk geroago dopinaren zurrunbiloak gaina hartuko zion berriz ere kirol jardunari.

Orduaren Errekorra berriro ere

Tiradera batean sartuta utzitako erronkari helduko zion Anquetilek 1967. urtean. Orduaren Errekorra. 1956. urtean Coppirena hautsi zuen eta hamaika urte geroago marka Riviereren esku zegoen.

Belodromorantz jo aurretik, errepideko zenbait lasterketa jokatu zituen. Hasteko, Frantziako Kriteriuma. Lasterketa jokatzekoa zen goizera arte parte hartu behar zuen edo ez ezin argitu. Berez, gainontzeko kideekin batera zegoen hotelean, baina ustezko eztarriko minagatik ez zela aterako esan omen zien taldekideei bezperan. Geminianik, ordea, azti jokatu zuen eta gaixotasunik ez zuela konturatu zen; Jacquesek ez zuen nahi etxean, Frantzian, Poulidorrek bera garaitzea. Zuzendariak psikologo lanak egin zituen eta afarian mariskoa jan eta whiskia edaten zuten bitartean, Jacques biharamunean korritzeko konbentzitu zuen. Lasterketaren lehen zatian gaixoarena egin behar zuela esan zion zuzendariak Anquetili, aurkariak nahasteko. Esan eta egin. Karreraren lehen partean tropelaren atzean joan zen, gaixo balego bezala, eta proba erabakiko zen zatian, berriz, tropelaren aurrealdera pasatu zen eta azkenean, kontrario guztiak menperatu zituen. Babesle berriarekin, Bic-ekin, lorturiko lehen garaipena izan zen. Anquetilek asko maite zuen Italia, baina beste txirrindulari askok ez bezala, uko egin zion Italiako talde batera joateari. Oso eroso sentitzen zen etxean, Normandian. Ez zegoen bizitokia aldatzeko prest. Ezta pentsatu ere. Horregatik bere kirol ibilbide guztia Frantziako taldeetan egin zuen. Ezin aipatu gabe utzi 1955eko Italiako Baracchi saria bertako Bianchi taldearekin lehiatu zuela, baina hori behin behineko erabakia izan zen, bere ordura arteko taldea, La Perle, desegin baitzen.

Giroa hirugarrenez irabazten saiatu zen 1967an. Trentora bidean, eguraldi ezin makurragoa zela eta mendatez jositako etapan, taldekide guztiak erretiratu zitzaizkion, bat izan ezik: Lucien Aimar. Hori horrela, maglia arrosarekin bukatzea amets hutsa zen. Ez zen, hala eta guztiz ere, amets hori errealitate bihurtzetik horren urrun izan. Zailtasunak zailtasun, lider jarri zen bi etaparen faltan, baina azken aurrekoan, Gimondik iskin egin zion tropelari eta horri esker Giroa irabazi zuen. Hura izan zen Anquetilen azken itzuli handia, eta podiumean bukatu zuen.

Dopinaren gurpil zoroan

1967ko Tourrean parte hartu ez, baina hala eta guztiz ere protagonista bilakatuko

zen Anquetil. Zenbait artikulua idatzi zituen prentsan eta horietako bat irakurrita, bereziki titularra irakurrita, dopatu zela ondoriozta zitekeen. Gerora artikulua hura ez zuela idatzi esango zuen eta honakoa arrazoitu: “Inozoa izan behar da gero, sinesteko txirindulari profesional batek eutsi diezaiokeela suspergarririk hartu gabe. Nik bitaminak baliatzen ditut, beti ere nire medikuen oniritziarekin. St Micheleko sendagileei ere aholkua eskatzen diet, hiru hilabetean behin mediku azterketa egiten baitut bertan. Sekula ez naiz dopatu”. Dopina berriz ere kirol ikuskizunaren gainetik zegoen. Are gehiago, Tom Simpson Mont Ventouxen gora hil zen Tour hartan; mingain gaiztoek dopinarekin lotu zuten Simpsonen heriotza, nahiz eta mediku azterketen arabera bihotzekoak jota hil zen ingelesa eta horretan ez zuen zer ikusirik izan dopinak. Azkenean, ez zen argitu artikulua polemikoa hura Anquetilek idatzi zuen edo ez, baina Frantziako zein Munduko Txapelketan parte hartzea galarazi zioten.

Giroa irabazi ez izanak guztiz ospindu zuen Anquetil. Uste zuen italiarrek zikin jokatu zutela, hain justu ere italiar batek itzulua irabaz zezan. Ezinegona eta haserrea ezin baretu eta Parisko jatetxe batean talde osoarekin izandako afarian taldekideei beraiei oldartu zitzairen. Hori guztia ikusita, Geminiani zuzendaria oso kezkatuta zebilen eta Jacques suspertzeko erronka etorri zitzaion burura: Orduaren Errekorra. Bi urte lehenago, Bordele-Paris lasterketarekin gertatu bezala, ezezko borobila jaso zuen Geminianik hasieran. Ezta pentsatu ere. Orduaren Errekorra oso proba gogorra zen eta Anquetilek ondo gogoan zuen asko sufritu zuela hamaika urte lehenago, Coppiren marka hautsi zuenean. Baina beste behin ere Geminiani nekaezinak Anquetil konbentzitu zuen. “Edo Orduaren Errekorra hausten duzu, edo bestela hobe duzu behiak zaintzeari ekin”, bota zion lotsagabe. Motorra ondo berotzeko, Kataluniako Voltan lehiatu zen Jacques, eta irabazle atera zen.

Saiakera, nola ez, Milango Vigorelli belodromoan egitekoa zen. Irailaren 27a izan zen finkatutako eguna. Goizean goiz, errepidera atera eta 35 kilometroko entrenamendu saioa egin zuen: 11:00ak pasata, bazkaria: urdaiazpikoa, pasta, xerra, fruta, Coca-cola eta kafea; 15:30ean belodromoan, motorraren atzetik, 15 minutuko saioa, eta 17:22an hastekoa zen Riviere herrikidearen marka hausteko ahalegina. Haizea zebilen, baina, eta eguraldi adituengana jo behar izan zuten, zer egin erabakitzeko. Azkenean, 17:38an lanean hasi zen eta 60 minutu geroago marka berria ezarria zuen: 47 kilometro eta 493 metro, Rivierek baino 146 metro gehiago egin zituen 60 minutuan.

Lehenengo denboralditik bizkar gainean zuen mamua berriz ere agertuko zen:

medikuek une hartan bertan dopinaren aurkako azterketa egin behar zuela agindu zioten. Anquetil eta Geminiani harri eta zur geratu ziren, ordura arte UCI Nazioarteko Txirrindularitza Elkarteak aurrez gutun bidez jakinarazten zien txirrindulariei kontrola igaro beharko zutela proba jakin batean parte hartu eta gero, eta orduko hartan ez zen halakorik gertatu. Anquetil eta Geminiani kontrol hura pasatzeko modua duina ez zela egotzi zioten medikuari –pixa egin ahal izateko edateko urik ere ez eman izana leporatu zieten kontroleko arduradunei– eta azterketa hotelean egiteko eskatu zioten.

Azkenean, Anquetilek ez zuen kontrola pasatu, eta beraz, Vigorellin arratsalde hartan 10.000tik gora zaleren aurrean egindakoaren arrastorik ez dago Orduaren Errekorra hautsi duten txirrindularien zerrendan, Italiako Txirrindularitza Federazioak hala erabakita. Lorpena baliogabetu zuten. Geminiani ahoberoak ez zuen dudarik: bere iritziz, italiarren ‘vendetta’ izan zen, izan ere, nola Anquetilek hala Geminianik berak behin baino gehiagotan salatu zuten Giroan Italiako ziklistek ez zutela mendateetan gora garbi jokatzeko eta zaleek bultza egiten zitetela kateatuta gera ez zitezen... Bertsioak bertsio, alferrikako ahalegina izan zen, beraz, Vigorellikoa. Frantziako buruzagien jarrerak ere sumindu zuen Anquetil. Inork ez zion ezta telegramarik bidali Italian lorturikoagatik zoriontzeko. Handik gutxira, ordea, Orduaren Errekorra ondu zuen Ferdi Bracke belgikarrak Frantziaren zorion agur ofiziala jaso zuen. Bere herrialdeko agintariak beraiek mespretxatu zutela sentitu zuen Jacquesek. Azken bi garaipen handienak, Lieja-Bastonge-Lieja 1966an eta Orduaren Errekorra 1967an, ilunduta geratu ziren.

Raphaël Geminianik *Mes Quatre vérités* liburuan azaldu zuenez, Anquetilek eta berak ez zuten apenas dopinari buruz hitz egin: “Kontuz ibiltzeko esan nion eta berak lasai egoteko erantzun. Egia esan, ez dakit Anquetil dopatu zen edo ez, baina ez zuen behar. Nik uste dut bere sekretua magnetizatzen zuen doktorea zela. Lasterketa garrantzitsu guztien atarian –Italiako Giroa, Frantziako Tourra, Bordele-Paris...– berarengana jotzen zuen. Ez dakit plazebo efektua izango ote zen, baina indarberrituta eta moralez gainezka ateratzen zen kontsultatik”.

Azken atzaparkada, Euskal Herrian

Bere kirol ibilbidearen azken zatian, Anquetilek erronka handiak, hala Giroa edo Tourra nola Orduaren Errekorra, alboratu zituen behin betiko. 1968an bi probatan egin zuen dir-dir. Oraindik tropelean bazegoela ozen esan nahi izan zuen Lieja-Bastonge-Liejan. Beste lau ziklistarekin iritsi zen Liejako belodromora, Poulidor, Van Springel, Godefroot, eta Van Sweeveltekin. Anquetilek azken esprinta abiarazi zuen, aurkarien artean bera baino azkarragoak ziren ziklistak zeuden arren. Zergatik orduan ekimena hartu? Nonbait Poulidorri lagundu nahi izan zion, aurrera eraman nahi izan zuen, baina Poulidorrek ezin hari jarraitu eta azkenean, Van Sweeveltek altxatu zituen besoak. Denboraldia bukatu aurretik, berarentzat probarik kutunetakoa zen Baracchi irabazi zuen Jacquesek, hirugarrenez; Gimondirekin aritu zen.

Anquetilen azken denboraldian, 1969an, lema aldaketa ikusi ahal izan zen errepidean. Paris-Nizako krono igoeran, Merckx belgikar gaztea Anquetilen atzetik abiatu zen, minutu eta erdi geroago, eta hala ere, erlojuz kontrako maisua, *Maître Jacques*, harrapatu eta atzean uzteko gauza izan zen.

Dena dela, podiumera igo zen Anquetil, Merckx txapelduna eta Poulidor bigarren sailkatuaren ondoan. Merckx, Poulidor eta Anquetil podium berean. Beste irudi historiko bat, zinez.

1969ko apirilean, Euskal Herrira etorri zen Jacques. Urte luzeetako lehortearen ondoren, Euskal Herriko Itzulia antolatu zuten, La Voz de España kazeta eta Bicicleta Eibarresaren elkarlanari esker. Hilaren 16tik 20ra 39 ziklista lehiatu ziren, Kas, Fagor, Bic eta Mercier taldeetan. Ispasterko Gabika, Perurena errenteriarra eta Ocaña espainiarra ziren Fagor talde indartsuko liderrak. Poulidor buru zuela etorri zen Mercier, Kasek Ibarruriko Gandarias ekarri zuen sailkapen nagusia lehiatzeko, eta Bic taldeari zegokionez, Jacques Anquetil zen talde burua, eta haren mesedetan lan egin behar zuten ziklisten artean Abarzuzako gazte bat zegoen: Jose Miguel Etxabarri, mende laurden geroago Miguel Indurain gidatuko zuena. Jonhy Schleck ere, Frank eta Andy anaien aita, Anquetilen alde lan egiteko pronto zegoen. Euskal Herriko Itzuli hartako lehendabiziko etapa, Eibar eta Gasteiz artekoa, Bic taldeko Wrightek irabazi zuen, alegia Anquetilen taldekide batek, eta ondorioz, lider jarri zen. Nork eta Gino Bartalik jarri zion soinean maillota Wrighti. Italiako txapeldun handia omendu zuen antolakuntzak, hark irabazi zuelako ordura arteko azken Euskal Herriko Itzulia,

1935ekoa.

Bigarren etapak Gasteiz eta Iruñea lotu zituen. Bidean, Udana, Etxegarate, Lizarraga eta El Perdoneko mendateak. Lizarraga jaisten, Kas taldeko Castellok eraso jo zuen eta soilik bost ziklista atera ziren bere atzetik, tartean Anquetil. Galera espainiarrak etapa irabazi zuen, eta sailkapenaren burua lortu zuen. Haren atzetik, orpoz orpo, San Miguel, Castello, Diaz, Perurena eta Anquetil. Poulidorrek egun beltza izan zuen, Udana mendatearen jaitsieran jausi egin zelako eta aurretik zihoan seikotea begi bistan zuela, bi bider zulatu zuelako gurpila. Zazpi minutu eta erdi galdu zituen helmugan. Ez zegoen, ordea, amore emateko prest.

Iruñea eta Donostia artekoa profesionaletara iritsi berria zen Ocaña espainiarrak irabazi zuen. Ocañak eta Poulidorrek Jaizkibelen utzi zituzten atzean gainerako txirrindulariak eta Anoetako belodromora ihes eginda iritsi ziren. Saiakerak saiakera, minutu erdi eskaseko aldea baino ez zioten kendu tropelari. Ondorioz, Galerak eutsi zion lidertzari.

Laugarren egunean bi etapa jokatu zituzten: Donostia eta Gernika artekoan, 118 kilometroko etapan, Azkarate, Areitio eta Autzagane igo behar izan zituzten. Raymond Riotte nagusitu zen. Bakar-bakarrik helmugaratu zen, bost minutuko aldearekin. Galerak lehen postuan jarraitzen zuen. Arratsaldeko erlojupeko saioan, Gernika eta Bilbo arteko 43 kilometroetan, erabakiko zen itzulia. Gabika eta Anquetil, Anquetil eta Gabika. Haiek ziren faboritoak denbora berean baitzeuden sailkapen nagusian. Galerak, lider izanda ere, ez zuen aukera handirik lehen postua mantentzeko bakarkako lanean. Erlojuz kontrako lehian, Poulidor nagusitu zen, Ocaña bigarren izan zen eta Anquetil hirugarren. Lehia estua izan zuen Ispasterko karreristarekin, baina Anquetilek 32 segundo gutxiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Poulidor eta Ocaña lekutan zeuden sailkapen nagusian, eta, ondorioz, Jacquesek jantzi zuen liderraren elastikoa. Sasoi onenetik urrun egonik ere, Gasteiz eta Iruñea arteko etapan ihesaldian sartu izanak eman zion itzulia lehiatzeko aukera. Azken egunean, Bilbon hasi eta Eibarren bukatutako etapan, Fagorrek sua piztu zuen Ixuan gora, Anquetil atzean utzi nahian, baina ez zuten lortu. Perurenak irabazi zuen Eibarren eta Anquetil podiumeko koskarik gorenera igo zen. Irabazitako azken itzulia izan zen hura. Beste aldetik, Anquetil eta bere taldekideak itzulian zuzendu zituen Raymond Louviot egun gutxi batzuk geroago hil zen auto istripuz Dunkerkeko lasterketa batera zihoala.

Jacquesek Frantziako Tourra ez zuen korritu. Ofizialki bederen. Izan ere, RTL Luxenburgoko Telebistarako esatari lanak egin zituen eta etapa guztiak bizikleta gainean egin zituen, ziklisten aurretik. Haren hasierako asmoa etapa bakoitzean 50 edo 100 kilometro egitea zen, eta gainerakoa, emaztearen autoan. Baina errepide bazterrean pilatutako zale andana bera ikusi bezain laster txaloka eta bibaka hasten zitzaizkion, eta horren aurrean, ezin bizikletatik jaitsi...

Zein eta Roueneko Kriteriuma izan zen bere azken garaipena. Etxe ondoan. Ongi baino hobeto ezagutzen zuen ibilbidean nagusitu zen, gaztetan Sotteville taldean aritzen zenean bezala. Denboran atzera egitea bezalakoa izan zen. Nerabazarora itzultzearen parekoa izan zen. Garaipen hura ezin zen Tourra edo Giroarekin alderatu. Ezta Les Nationsen egindako balentrieekin ere. Baina barru-barruraino iritsi zitzaion Anquetili Rouenen irabazi izana eta festa aparta antolatu zuen bere etxean. Bere taldekide eta aurkarietako batzuk gonbidatu zituen, hala nola, Janssen, Adorni, Gimondi, Stablinski...eta baita Poulidor eta Altig ere. Liskar bat baino gehiago izan zituen Anquetilek bai Poulidorrekin bai Altigekin urte batzuk lehenago. Hala eta guztiz ere, egun hartan denak elkartu ziren ospakizunean. Jan eta edan zuten aspertu arte.

Lege zaharrean. Whiskiz eta xanpainaz beteriko paleak ekarri ohi baitzituzten Jacquesen etxera denboraldi bukaeran. 30 lagun inguru elkartzen ziren, hotelean bailiran. Luis Ocaña ziklista espainiarra eta Antoine Blondin eta Pierre Chany kazetariak ere Anquetilen apopilo bihurtu ziren. Bere haurtzaroko eta nerabezaroko lagunei ere harrera egiten zien maiz.

Belgikan, Anberesko belodromoan, lehiatu zen Anquetil azkeneko aldiz, beste behin ere Merckxen kontra, 1969ko abenduaren 26an. Belgikarraren aroa hasi berria zen –urte hartan irabazi zuen aurrenekoz Tourra–, eta Anquetilek ordurako bukatutzat emanda zuen berea.

Frantziako Tourra bost aldiz irabazten lehena izateagatik du Anquetilek toki berezia txirrindularitzaren historian, baina baita erlojupekoetan urtetan jaun eta jabe izateagatik. Ez alferrik 11 etapa irabazi zituen Tourrean erlojuz kontra. Eta hori gutxi balitz bezala, Grand Prix des Nations egun bakarreko proba, hura ere erlojuz kontrakoa, bederatzi aldiz eskuratu zuen. “Hankak eta burua, arlo fisikoaren eta mentalaren arteko batura; ekuazio asko askatzeko”. Urte askoan, Frantziako Tourra jarraitu zuen Jacques Augendre kazetariaren hitzak dira, erlojuz kontrako proben

zailtasunari buruz ari zela. Anquetil inflexio puntua izan zen erlojupekoetan, Augendrereren ustez, ordura arteko bat-batekotasunarekin errotik moztu zuelako. Ziklismoa utzi eta gutxira Pierre Chany kazetari eta adiskideari luze eta zabal mintzatu zitzaion Anquetil, batik bat erlojuz kontrako lanari buruz. “Erlojuz kontrako saioetan garrantzitsuena kemena da; min fisikoa jasan beharra dago, eta kontzentrazioari eutsi uneoro, baita zuzengune luzeetan ere. Nire posizio aerodinamikoa etengabe zuzentzen ahalegintzen nintzen, burua sorbalda artean sartzen. Gertatu izan zait erlojupekoetan aitarekin gogoratzea eta pentsatzea zorionekoa izan naizela, meategi batean edo Billancourteko muntai kate batean buka nezakeelako. Hala ere, tankera horretako burutazioak ez nituen sarri eduki, erdietsi beharreko helburuak zeharo xurgatzen ninduelako”.

Erlojuz kontrako saioetan, matxurei, eta bereziki zulatuei, aurre egiteko orduan ere azti jokatzen zuen Normandiako ziklistak: “Probaren hasieran, gurpila zulatuz gero, hobe da bizikleta ez aldatzea. Izan ere, hartutako posizioari eustea garrantzitsua da. Nekez lortzen duzu posizio egokia beste bizikleta batean, nahiz eta bi bizikletak bi ur tanta bezalakoak izan. Matxura helmugatik 20 bat kilometrora gertatuz gero, orduan bai, hobe da bizikleta aldatzea, azken tarte horretan pedalei kementsu eragitea baita giltzarria. Bestalde, nahiago izan dut beti bizikleta aldaketa igoeretan izatea; jaitsieran denbora gehiago galtzen da, abiaduragatik balaztei eragin behar zaielako gelditzeko. Igoeretan, aldiz, matxura konpondu eta gero, mekanikariaren bultzada izaten duzu alde, berriz ere pedal kolpea hartzeko.”

Erretiro ostekoa

Txirrindularitza utzita, nekazaritza lanei ekin zien gogotsu Anquetilek. Saint Adrien utzi eta La Neuville-Chant-d'Oisel-en jarri ziren bizitzen Jacques eta Janine senar-emazteak, Rouenetik hamar kilometrora, 275 hektareako lursail izugarri zabalean. Baso batek inguratuta zegoen etxea. Nolanahi ere, Anquetilek ziklismoa ez zuen guztiz baztertu eta esate baterako, Tourrean esatari aritu zen. Horrez gainera, Paris-Niza eta Midi-Libre lasterketetan ardura postuak izan zituen eta Frantziako taldeko zuzendari lanak egin zituen zenbait urtetan Munduko Txapelketetan. Behin txirrindulari profesionala izateari utzita, are estuagoa bihurtu zen Anquetil eta Poulidorren arteko harremana, lagun onak izateraino.

Beste aldetik, naturak zeharo kateatua bizi zen Jacques. Gauez, bakar-bakarrik izarrei begira egotea gustatzen zitzaion; astronomia zalea zen. Bere lursail zabaleko basurdeak gauaren isiltasunean entzutea ere gogoko zuen. Begirune handia zien animaliei.

Sophie eta Christopher seme-alabak

Urteak joan urteak etorri, Giroa, Tourra eta gainerako lasterketak eta aurkari guztiak iraganaren parte bilakatu zitzaizkion. Anquetilek aita izateko desioa gero eta handiagoa zuen. Haatik, Janine emazteak ezin zion seme-alabarik eman. Izan ere, haren bi haurdunaldiak oso gogorrak izan ziren eta aurreko senarrak tronpa lotura egin zion. Denboraren poderioz, nahia obsesio bihurtu zen. Janine emaztea horretaz jakitun zen. Anquetilek alokairuzko ama batengana jotzea pentsatu zuen, horrenbeste nahi zuen semea edo alaba izateko. Janine emazteari ez zitzaion ideia gustatu eta, azkenean, hemezortzi urte bete berriak zituen Annie alaba, aurreko senarrarekin izandako alaba, proposatu zion Anquetili. "Edozein bera izan ezik". Hori izan zen Jacquesen bat bateko erantzun lehorra, baina azkenean iritziz aldatu eta Annie izango zen Sophie alabaren ama.

Sophie Anquetilek duela urte batzuk plazaratutako liburuan haurtzaroa eta nerabezaroa kontatu zituen, luze eta zabal. Asko eta askorentzat guztiz ezezaguna zenak hautsak harrotu zituen. Sophie liburuan azaldu zuenez, bi amarekin hazi zen: ama biologikoa, Annie, eta aitaren emaztea, berez amona zuena, Janine. Baita pozik hazi ere. Ondo gogoan du aitaren aurkaririk handiena, Poulidor, atsegin zuela eta behinola aitari Poulidorrengana joateko eskatu ziola bere txanoa eskuratzeko.

Pasadizo barregarri horren ondorioz lagun min bilakatu ziren Anquetil eta Poulidor, eta ordutik aurrera behin baino gehiagotan aholkuak eman zizkion Jacquesek Poulidorri erlojupekoak prestatzeko. Sophie Anquetilek kaleratutako liburuan jasota dagoenez, oso luze jotzen zuten bere aita eta Poulidorren arteko poker partidek. “Ezin izan nuen inoiz Anquetil gorrotatu, nire bizitzaren parte izan baitzen”, aitortu zuen Poulidorrek.

Urteen joanarekin giroa zeharo gaiztotu zen La Neuwillen, Anquetil eta bere familiaren bizilekuan. Ume txiki batek ekarri ohi duen poza eta zoriona desagertu zen gutxika-gutxika. Jacques Annierekin maitemindu zen, eta berarekin sexu harremanak izaten jarraitu zuen, Sophie alaba jaiotakoan ere. Azkenean, Anniek etxetik alde egitea erabaki zuen. Une hartan erotzetik gertu izan zen Anquetil, eta haren semeordearen emazte Dominique ere izan zuen ohekide. Horrek ekarriko zuen Janine eta Jacques banantzea. Anquetilek ordurako Annie berreskuratzea besterik ez zuen buruan. Ez zuen lortuko, baina. Hala ere, bigarrenez izango zen aita; Christopher semearen ama Dominique izan zen.

Ordurako Anquetil gaixo zegoen. 1976an osasun arazoak hasi zitzaizkion. Aurrena, biriketan, eta gero urdailean. 1987ko Tourrean esatari lanak egin zituen –Stephen Roche irlandarrak Pedro Delgado espainiarrari azken arnasean irabazi zioneko– eta itzulia bukatu bezain laster ebakuntza egin zioten urdaileko minbizia zela eta. Ebakuntzatik onik atera zen eta aste gutxi batzuk geroago, Frantziako taldea zuzendu zuen Austriako Munduko Txapelketetan. Etxera bueltan, okerrera egin zuen eta azaroaren 18an zendu zen. Poulidor izan zen Anquetil erietxean, hil zorian zela, bisitatu zuen azkenetakoa, eta une hartan hainbat egunkaritan eta liburutan jasotako esaldia bota zion Jacquesek hasieran aurkaria eta ondoren laguna izandakoari. “Mundu honetatik joateko tenorean ere, zu nire atzetik”. Quincampoixeko hilerrian lur eman zioten Anquetili, nola ez bestela, maillot horia hilkutxaren gainean jarrita.

Gogaituta bukatu al zuen Anquetilek bizikletarekin? Haren jokabidea ikusita, baietz esan daiteke. Izan ere, gertukoek bakarrik hiru aldiz ikusi zuten bizikleta gainean lehiatzeari utzi eta gero. Pare bat ibilaldixotan, lagunartean, eta Sophie alabak zortzi urte bete zituen egunean; bizikleta gainean ikusi nahi zuela erregutu zion aitari eta Anquetilek egun hartan eman zituen azken pedalkadak; kulotaren partez bainujantzia soinean zuela, bere burua igerilekura bota zuen bizikleta eta guzti.

Jacques hil eta hamar urtera, 1997an, Tourra Rouenetik abiatu zen. Egun hartan,

Anquetili eginiko omenaldian, irabazi zuen lehen Tourreko –1957koa– taldekide guztiek parte hartu zuten. Horretaz gain, ordura arte Tourra bost aldiz irabazitako beste hiru txirrindulariek, Eddy Merckxek, Bernard Hinaultek eta Miguel Indurainek lore eskaintza egin zioten Quincampoixeko hilerrian. Anquetilen arrastoa toki batean baino gehiagotan geratu da. Esate baterako, Marignane herrian hari eskainitako kalea dago –artean ziklista profesionala zela ‘bataiatu’ zuten kale hura– eta haurtzaroa igaro zuen herriko kiroldegiari, Quincampoixekoari, bere izena jarri zioten. Hori guztia gutxi balitz bezala, Anquetilen azken bizitokiraino, La Neuville-Chant-d’Oiseleraino, iristen den lau kilometroko aldapak Côte Anquetil –Anquetil gaina– du izena. Malda hasten den tokian, gainera, bizikleta erraldoi bat dago, eskultura moduan. Eta gauzak zer diren: Rouengo, Normandiako hiriburuko, ikurra 500 urte baino gehiago dituen ordulari handi bat da.

1964ko Tourreko oroitzapenak (epilogo)

Bost urte Frantziako taldeetan eman eta gero, Espainiako Ferrys taldean nengoen urte hartan. Andorra eta Tolosa (Okzitania) arteko etapa hasi eta berehala, Envalira mendatean gora tropeletik alde egin genuen bost lagunek, tartean ginen Poulidor eta biok. Poulidorrek laguntzeko eskatu zidan, eta laguntzaren truke dirua emango zidala agindu. Nik zenbat eman behar zidan galdetu nion, eta berak dirua hitza esaten zidan frantsesez, eta nik, temati, zenbat eman behar zidan galdetzen jarraitu nuen. Ez zidan erantzun, eta erreleborik ez nion eman. Xuhurra zen Poulidor, gero...Helmugatik hogeikilometrora, tropelak, Anquetil bertan zela, harrapatu gintuen. Poulidorrek, atzera begiratzen ari zela, gurpila zulo batean sartu zuen. Bizikleta aldatu zioten, baina erritmoa hartzeko bultzada jaso zuenean, zilipurdika joan zen. Zergatik ez nion, bada, Poulidorri lagundu Anquetil atzean uzteko? Ba bost gindoazelako ihesaldian eta ez nuen etapa irabazteko ziurtasunik. Laugarren helmugaratu nintzen azkenean.

Handik egun gutxira, berriz ere ihesaldian sartu nintzen, Puy de Domera bidean. Egun hartan, errepide estu batean, auto baten kontra jo nuen. Kolpe handia hartu nuen eta bertan josi behar izan zidaten besoa. Bizikleta gainean igo eta helmugara iritsi nintzen, 31. postuan. Egun hartan *Malchanceren* (zorigaiztoa) saria eman zidaten...

Gogoan dut Anquetil ez zela oso hizlaria, eta irribarre lotsatia zuela; irribarre egiten zuenean ez zituen hortzak erakusten. 1960an Espainiako Vuelta esku-eskura izan nuen, baina azkenean, Poulidorrek irabazi zuen. Anquetilek galdetuko zidan gerora. "Baina nola gainditu zaitu, alajaina!". Hura izan zen Poulidorrek irabazitako hiru asteko itzuli bakarra. Oso lehia estua zuten Anquetilek eta Poulidorrek, egiazki.

Luis Otaño (Errenteria-Orereta 1934). Anquetilen urte eta hilabete berean – urtarrilean– jaiotako txirrindulariak 1958tik 1967ra hartu zuen parte Tourrean eta bitan baino ez zen erretiratu, 1959an eta 1967an. Hortaz, bertatik bertara bizi izan zituen Anquetilek irabazitako bost Tourretatik lau: 1961, 1962, 1963 eta 1964koak. 1966an, Anquetilen azken Tourrean, Privas-Bourg d'Oisans etapa irabazi zuen.

Glosarioa

Altig, Rudi

Ziklista alemaniarra Anquetilen taldekidea izan zen zenbait urtetan. Taldekideak izan arren, bien arteko harremana nahiko liskartsua izan zen. Altig beste talde batera joan zenean alemaniarren eta frantziarren arteko harremanak hobera egin zuen.

Anquetil, Christopher

Jacquesen semea. Alain seme ordezkoren emaztea, Dominique, gatibatu zuen Jacquesek bere azken urteetan eta harekin izandako harremanaren emaitza izan zen Christopher.

Anquetil, Ernest

Jacques Anquetilen aita. Igeltseroa zen, baina Bigarren Mundu Gerran, nazien mesedetan gotorlekuak egiteari uko egin zion. Familiarekin Quincampoixera mugitu zen eta nekazari bilakatu zen.

Anquetil, Janine

Jacques Anquetilen emaztea. Bere lehenengo senarra Anquetilen kirol medikua zen eta horrek hurbildu zituen Janine eta Jacques. Janinek bi seme-alaba zituen Anquetilekin ezkondu zenean, Alain eta Annie.

Anquetil, Sophie

Jacques Anquetilen alaba, 1972. urtean jaioa. Janine emazteak ezin zion seme-alabarik eman Jacquesi, baina berak kosta ahala kosta aita izan nahi zuen. Azkenean, Janine emaztearen alabak, Anniek, ekarriko zuen mundura Anquetilen alaba.

Bahamontes, Federico Martin

Espainiarrak 1959ko Tourra irabazi zuen eta sei aldiz nagusitu zen Mendiko Saillkapenean. 1964an hirugarren sailkatu zen Anquetil eta Poulidorren atzetik.

Baldini, Ercore

Italiako ziklista oso abila zen erlojupeko saioetan. Hain zen trebea, bera izan baitzen Anquetilen Orduaren Errekorra hautsi zuena, 1956an.

Baracchi lasterketa

Italian bikoteka jokatzan zen erlojupekoa. Denboraldiaren bukaeran izaten zen eta sona handia zuen. Anquetilek hirutan irabazi zuen: 1962ean Altigekin, 1966an Stablinskirekin eta 1968an

Gimondirekin. 1991an jokatu zen azken aldiz.

Bidot, Marcel

60ko hamarraldira arte Tourrean herrialdeka parte hartzen zuten ziklistek, beste karreretan ez bezala. Bidot Frantziako taldeko zuzendaria izan zen zenbait urtetan. Talde indartsuegia izan zuen, taldeburu bat baino gehiagorekin, eta horrek buruhauste franko eragin zizkion.

Bobet, Louis

Ziklista bretoiak Tourra hiru urtez jarraian irabazi zuen 50eko hamarraldian. Hori egiten lehena izan zen. Anquetilek 1957ko Tourra irabazi ostean, tirabirak izan ziren bien artean, batak zein besteak uste zutelako merezi zutela Frantziako taldeburua izatea Tourrean.

Boucher, Andre

Anquetilen lehenengo zuzendaria izan zen, Autocycle Sottevillais taldean. Profesionaletan egonik ere, usadio zaharrari eutsi zion Anquetilek eta zenbait proba behar bezala prestatzeko, Orduaren Errekorra kasu, Boucherren motorraren atzetik entrenatzen zen.

Chany, Pierre

Tourrean lanean ibilitako kazetari ezagunenetakoa, eta Anquetilen laguna. Jacquesek gonbidatu ohi zuen bere etxeko festa jendetsuetara, eta Anquetilek esan ohi zuen inork baino hobeto kontatzen zuela Chanyk errepidean berari gertatutakoa. 49 urtez jarraitu zuen Frantziako Tourra. 50.aren atarian hil zen, 1996an.

Coppi, Fausto

Italiak eman duen ziklistarik handienetakoa, handiena ez bada. Giroa bost aldiz (1940, 1947, 1949, 1952 eta 1953) eta Tourra birritan (1949, 1952) irabazi zuen. Anquetilen idoloa zen eta italiarraren azken urteetan, proba batzuetan, elkarren

aurka lehiatu ziren. 1959ko urte bukaeran Coppi Alto Voltara –gaur egungo Burkina Faso– joan zen lasterketa batean parte hartzera, bertan gaixotu eta handik bueltan bere herrian, Novi Liguren, hil zen.

Darrigade, Andre

Anquetilen taldekidea izan zen luzaroan. Bere ondoan izan zuen 1957an, eta 1961an irabazitako Tourretan, itzulia herrialdeka jokatzen zen garaian. Anquetilek, bere aldetik, 1959ko Munduko Txapelketa irabazten lagundu zion. Hamalau aldiz parte hartu zuen Tourrean eta 21 etapa irabazi zituen. Jacques eta Andre oso lagun onak ziren.

Gaul, Charly

Luxenburgoko igotzaile aparta Anquetilen aurkari zitalenetakoa izan zen. *Euriaren aingerua* 1958ko Tourrean eta 1959ko Giroan gailendu zitzaion. 1956ko Giroa ere irabazi zuen.

Geminiani, Raphaël

Jacques Anquetilen zuzendaria izan zen zenbait urtetan. Elkarri mokoka aritu ziren behin baino gehiagotan, baina elkarrekin bide arrakastatsu eta oparoa urratu zuten. Zuzendaria izan aurretik, txirrindularia izan zen Geminiani eta bere izaerak isla zuen errepidean, erasotzaile peto-petoa zen eta. Coppi bezala, malariak jota etxeratu zen Burkina Fasotik 1959ko azken egunetan. Coppi zendu zen, baina Geminiani, ozta-ozta izan bazen ere, onik atera zen.

Grand Prix des Nations

Frantzian egiten den erlojupekoa. Iraila-urrian izaten da eta Anquetilek bederatzi aldiz irabazi zuen. Munduko Txapelketan eta Olinpiar Jokoetan erlojuz kontrako probari leku egin ziotenean, Les Nations bi proba horien itzalean geratu zen nabarmen, baina oraindik orain egiten da.

Legrande, Marie

Ernest Anquetilen emaztea eta Jacques eta Philipperen ama. Etxeko andrea izan zen. Gertu-gertutik jarraitu zituen semearen ibilerak. Bitxikeria gisa, 1958ko Parisko Sei Egunetan semea belodromoan bertatik bertara ikustera joan zen, baina erdi ezkutuan geratu zen, inor bera han zegoela kontura ez zedin. Bukatutakoan

semearengana hurbildu eta platera eta pinoi konbinazioarekin ez zuela asmatu esan zion. Jacques gazteak –24 urte zituen– zur eta lur begiratu zion amari.

Loroño, Jesus

Larrabetzuko ziklista bosgarren sailkatu zen Anquetilek irabazitako lehen Tourrean, 1957an. Lau urte lehenago, 1953an, etapa eta Mendiko Sailkapena etxeratu zituen Frantziako Itzulian.

Nencini, Gastone

Mugelloko Lehoia goitizenez ezaguna, primeran jaisten zen, eta dohain horri esker oso estu hartu zuen Anquetil 1960ko Giroan. Urte hartako Tourrean gailendu zen italiarra.

Pelissier, Francis

Anquetilek profesionaletan izandako lehen zuzendaria izan zen, La Perle taldean. Haren esanetara lortu zuen Jacquesek lehen garaipen handia, 1953ko Grand Prix des Nations erlojupekoa. Ahoberoa zen, eta lehia handia zuen Frantziako beste talde nagusiaren zuzendariarekin, Antonin Magnerekin. Zuzendaria izan aurretik ziklista izan zen Pelissier, hautsak harrotzen zituen horietakoa. Bi etapa irabazi zituen Tourrean eta 1924koa utzi zuen, anaiarekin batera, lasterketako zuzendariarekin haserretu eta epelak esan eta gero.

Poulidor, Raymond

Ezin Jacques Anquetil aipatu Raymond Poulidor aipatu gabe. Masbaraud-Marignaten jaiotako txirrindularia 1962an eta 1964an, Tourrean, Anquetilekin igo zen podiumera –hirugarren eta bigarren, hurrenez hurren– eta gerora ere podiumean beste sei aldiz izan zen; inoiz, ordea, ez zuen koskarik gorena zapaldu. Errepidean aurkari zuzenak baziren ere, lehiatik kanpo oso harreman ona izan zuten, batik bat Anquetilek erretiroa hartu zuenetik aurrera.

Puy de Dome

Clermont-Ferranden dagoen sumendia. Ziklismoari dagokionez, 1952ko Tourrean igo zuten aurreneko aldiz, eta Coppik irabazi zuen. Haren maldetan Anquetilek eta Poulidorrek 1964an izandako lehia ezin estuagoak legenda bihurtu zuen. Mitikoa. Mont Ventouxekin batera, Erdialdeko Mendikateko aldapa tenteena da. 1988ko

Tourraz geroztik ez dute Puy de Dome igo, errepidea estuegia delakoan.

Riviere, Roger

Anquetilengan ez ezik, Riviererengan ere itxaropen handiak jarriak zituzten Frantziako zaleek 50eko hamarraldiaren bukaeran eta 60koaren hasieran. Jacques bezala, gainera, oso iaioa zen erlojuz kontrako saioetan. 1960ko Tourrean irabazteko faborito nagusia zela, eroriko larria eduki zuen eta ez zen berriro ere bizikleta gainean igo. 1976an hil zen arte minaren minez bizi behar izan zuen.

Simpson, Tom

Ziklista ingelesa lehen pedalkadak ematen ari zen txirrindularitza profesionalean Anquetil gailurrean zegoenean. 1965eko Bordele-Paris lasterketa amaigabea bera izan zen Jacquesen aurkaririk handiena, eta urte berean Lasarten jokaturako Munduko Txapelketa irabazi zuen. 1967ko Tourrean zendu zen, Mont Ventouxen gora bihotzekoak jota.

Stablinski, Jean

Anquetilen taldekiderik fidelena. Irabazi zituen bost Tourretan aldamenean izan zuen, baita 1965eko Bordele-Paris klasiko handian ere.

Vigorelli

Milango belodromoa. Bertan lortu zuen Anquetilek Coppiren Orduaren Errekorra hobetzea, 1956ko ekainaren 29an.

Bibliografia Liburuak

Pierre Pelissier (1997) *La legende de Jacques Anquetil*. Rageot- Éditeur, Paris

Christian Laborde (1998) *Duel sur le volcan*. Albin Michel, Paris
Christian Laborde (2010) *Le Tour de France dans les Pyrénées*.

Le cherche midi, Paris

Sophie Anquetil (2004) *Pour l'amour de Jacques*. Bernard Grasset, Paris

Raphaël Geminiani (2010) *Mes quatre vérités*. Jacob-Duvernet, Paris

Raymon Poulidor - Jean Paul Brouchon (2009) *Poulidor Le Poulidor*. Jacob-Duvernet

Hainbat egile. *Retratos legendarios del Ciclismo*. Edimat, Madril

Carlos Arribas-Sergi Lopez Egea (2005) *Cumbres de leyenda*. RBA, Bartzelona.

Aldizkariak

Memoire du Cyclisme

Mirroir Sport

L'Equipe Magazine

Egunkariak

Marca

La Voz de España

Webguneak

Urtekaria.com

Filmak-dokumentalak

Le Mystère Anquetil – Philippe Koly

Janine Anquetil, La dame blonde – Gerard Courant



XX. mendeko 50eko hamarraldian, Fausto Coppi italiar ahaztezinak liluratuta zituen txirrindularitza zale asko. Frantziak ere bazuen itzal handiko ziklista: Louison Bobet.

Saso hartan, Bobeten lorpenak txiki utziko zituen txirrindulariak, Jacques Anquetilek, lehen agerraldiak egin zituen. Erlojupekoetan eman zuen bere burua ezagutzera, erlojuz kontra maisua baitzen Anquetil. Baina itzuli handiak ere begiz jo zituen Normandiako ilehoriak. Frantziako Tourra bost aldiz irabazten lehena izan zen, eta beste hainbat lasterketatan nagusitu zen, tartean 1969ko Euskal Herriko Itzulian.